

asteari zeharka begira

Azterketa seriorako kasua: nikefobia
gure politikan **MIKEL ZUBIMENDI > 9**

AINARA SANTAMARIA: «Borroka
eta eraldaketarako sekulako
esparrua da maitasunarena» **> 18**

2015eko abuztuaren 29a | IX. urtea • 431. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



KONBENTZITU ALA ASPERTU EGITEN GAITUZTE?

ASPERGARRIAK ETA ERREPIKAKORRAK IZAN
OHI DIRA POLITIKARIEN HITZARTZEAK. ORAIN
GUTXI ARTE EZ DIOTE AHOZKOTASUNARI
BEHAR BESTEKO GARRANTZIRIK EMAN;
ORAIN, AHOZKO KOMUNIKAZIOA HOBETZERA
BEHARTUTA SUERTATU DIRA. **> 10** GAUR8




Emakume musulmanak: janzkerak, rolak eta feminismoa 04

Politikariak, ahozko komunikazioa hobetzera behartuta 10

Antzeko balioak hedatzen ditu telebistak munduan zehar 14

Elkarrizketa: Ainara Santamaria, maitasun erromantikoaz 18

Behatxulotik 22



SINADURAK:

03 **Isidro Esnaola:** Hasi da dantza

08 **Oier Gorosabel:** Eskolako haurren motxilak, eta abar

09 **Mikel Zubimendi:** Azterketa seriorako kasua: nikefobia gure politikan

13 **Unai Iturriaga**

16 **Gaizka Amondarain:** Kamikazearena

17 **Garazi Goia:** Probokazioak

21 **Saioa Iraola:** Txarrantxa hesia

21 **Joxean Agirre:** Gune intimoak

23 **Ander Izagirre:** Masifikazio turistikoaren alde



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Hasi da dantza

Txina dantzan hasi da, eta gainontzeko estatuak laster hasiko direla ematen du. Kontua da musika aspaldi entzuten zela mundu mailako merkatuan, baina inork ez diola jaramonik egin nahi izan. Analistek Txinako ekonomian eta bertako gobernuak egin duen kudeaketan jartzen dute begirada. Arrazoi puntu bat izango dute. Dena den, azken egunetako mugimenduen iturburu bakarra zehaztea arriskutsua da. Eragin askok eta ezberdinek elikatu dute gaur egungo egoera; beste faktore batzuk gutxietsi gabe, garrantzitsua izan daiteke mundu mailan izan dugun musikaren erritmoan erreparatzea. Eta erritmoa diru jaulkitzeak jarri du.

Orain dela zazpi bat urte, Ameriketako Estatu Batuetan finantza krisia lehertu zenean –ondoren Europar jazo zen gauza bera–, dirua jaulkitzea izan zen krisiari aurre egiteko hartutako erabakia. Diruaren prezioa jaitsiz, hau da, interes tasak zeroraino eramanez, dirua erruz zabaldu zuten. Dolar berri eta merke horiek munduko ekonomia-
ren baitan erosahalmena handitzea ekarri zuten. Eta dolar horiek munduan zehar barreiatu ziren, mugarik gabe, denetarik erosten; ondare higiezinetatik hasi eta lehengaiak, merkantziak, burtsako baloreetaraino, dena erosten zuten. Erosahalmen gehitu horrek ekarri zuen prezioen igoera; ez bakarrik petrolioaren prezioarena, lehengaien prezioek ere izugarritzko igoerak izan zituzten. Hainbeste igo ziren garai hartan elikagaien prezioak nazioarteko erakundeek munduan zehar gosea zabaltzearen arriskuaz ohartarazi behar izan zutel.

Erosketa horiek guztiak tokiko monetarekin egin ziren, hau da, dolarrak tokiko monetetan trukatu ziren. Ondorioz, tokiko moneta horien gaineko eskaera igo zen, baita kotizazioa ere. Horrek tokiko erritmoari bere ekarpena egin zion: bertako moneta baliotsuagoa bihurtzen denean, merkantzia gehiago erosteko aukera zabaltzen da bertako herritarrentzat eta enpresentzat. Eta merkantzien munduko ekoizle nagusia Txina den neurrian, zeharka bada ere, erosteko ahalmen gehitu horrek bere hazkundera bultzatu zuen. Maila apalago batean, erosle horiek Ameriketako Estatu Batuetako eta Europako merkantziak ere erosi zituzten. Diru jaulkitze hori egiteko helburua finantza sistemari likidezia ematea zela adierazi zuten or-

duan, hau da, «musikaren jarioa» bermatzea. Baina zeharka, mundu osoko ekonomiaren pizgarri izan da; nahi edo nahi gabe, beharrik izan ala ez.

Orain buelta dator. Ameriketako Estatu Batuetako Erreserba Federalak dio interes tasak igotzeko tenorean dagoela, bertako ekonomiak eskatzen duelako. Aurten hasiko omen da interesak igotzen. Hori gertatzean, dolarraren kotizazioa igo egingo da eta, gainera, dirua bertan inbertituz, interesak igo egingo dira. Egoera horren aurrean, munduan zehar barreiatuta dauden dolarrak etxerako bidea hartzen hasi dira. Horrek dolarraren igoera eragin du, baita munduko moneta gehienek kontrako bidea hartzea ere. Bere garaian igoerak izan zituzten aktiboak, petrolio eta lehengaiak esaterako, merkatzen hasi dira. Bataren zein bestearen eskaera gutxitu egin da, eta hori, batez ere eta lehenengo kolpean, munduko fabrikari nabaritu da.

Txinako ekonomiari beste arazo bat gehitu zaio: bere monetaren kotizazioa dolarri lotuta egon izan da. Az-

Munduko ekonomiaren erritmoa aldatzen ari da, orkestrako zuzendariak hala erabaki duelako. Kapitalen mugimendu askeak ahalbidetzen du, aldebakarreko erabakien arabera, estatuak dantzan jartzea

ken horrek gora egitean, Txinako moneta ere gora egin ohi du. Txinako *renminbi*-ak, ordea, dolarraren kontrako norabidea hartu du, Txinako kanpoko salmentak are eta gehiago zailduz. Horregatik, hilabete honetan *renminbi*-aren kotizazioa finkatzeko sistema aldatu du Txinako Gobernuak, dolarrarekiko lotura ahulduz.

Munduko ekonomiaren erritmoa aldatzen ari da –begi-bistakoa da–, orkestrako zuzendariak hala erabaki duelako. Kapitalen mugimenduak askatasun osoa izateak ahalbideratzen du, aldebakarreko erabakien arabera, munduko estatuak dantzan jartzea. Txinako Gobernuak saiatu da muga batzuk jartzen, baina begi-bistakoa da ez direla eragin kaltegarriak oztopatzeke nahikoa izan. Betiko lez, munduko pobreenek pairatuko dituzte ondorioak. •

Buruko zapi edo «hijab» delakoaren inguruan erai-ki da askotan Mendebaldean emakume musulmanaren irudia. Jantzkerak ez duela emakume musulmana definitzen nabarmendu nahi dute Saudi Arabian bizi diren hiru emakume gazte hauek. Zapalkuntzaren eta aukeratzeko gaitasunaren inguruan sortutako zenbait «uste okerri» buruz ari-tu dira, eta islama eta feminis-moa bateragarriak ote diren hausnartu dute. Arrazoi pertso-nalak direla-eta, Nouf Al Hamly-k eta Smara Hamara-k ez dute euren irudirik erakutsi nahi izan.

Zein da emakume musulma-nen egoera edo rola gaur egun (lana, familia, independen-tzia...)? Azken urteotan zer bila-kaera izan duela esango zenu-kete?

Smara Hamana: Ezin da emaku-me musulmanez hitz egin de-nak zaku berean sartuta. Bakoi-tzaren jatorriaren arabera-koa da norberaren rola; herrialdeak, kulturak eta tradizioak eragina izan dezakete. Afganistango lan-da guneko emakumeek ez dituz-te Aljeria, Beirut edo Arabiar Emirerri Batuetako emakumeen bizi baldintza berak. Lehenengo-ek ez dute oinarritzko eskubide-rik; aldiz, hiri handietako edo mendebaldartutako eremueta-ko emakumeek beste edozein emakumek duen bizi maila du-te, musulmana izan ala ez.

Nouf Al Hamly: Emakume mu-sulmanen egoera gaur egun eu-ren gizartearen arabera-koa dela esango nuke. Ekialde Hurbilari buruz ari garenean, jende askok uste du emakume musulmanen egoera dogma erlijiosoari oso lotutakoa dela. Neurri batean egia da, baina eragin handiena duen faktorea kulturala da. Ekialde Hurbileko gizarte gehie-netan erlijioaren eta kulturaren arteko muga lausoa den arren, esango nuke paradigma kultu-raren alderantz ari dela alda-tzen.

Horiek horrela, nire iritziz, Ekialde Hurbileko emakume

*«Ekialde Hurbilari
buruz ari garenean
jende askok uste du
emakume
musulmanen
egoera dogma
erlijiosoari oso
lotutakoa dela.
Neurri batean egia
da, baina eragin
handiena duen
faktorea kulturala
da»*

*«Ez nintzateke
geratuko
feminismoa eta
erlijioa
bateragarriak direla
esatean, are
urrunago joango
nintzateke,
feminismoa gure
erlijioaren bidez
sustatzen dugula
ere esango nuke»*



musulmanen egoera hobetu egin da egungo gizartearen. Ema-kume gehiago dago politikan, enpresetan, eskulangintzan; le-hen gizonen presentzia absolu-tua zen beste hainbat arlotan. Emakume gazteak atzerrira jo-tzen eta maila handiko hezkun-tza jasotzen ari dira, batez ere Mendebaldeko herrialdeetan, kultura kontraste itzelarekin eta modu independentean bizitzen ikasiz.

Maryam S. Ahmad: Orain dela 1.400 urte emakume musulma-nak nolakoak ziren erakusten duen adibide argia da profeta-ren emaztea, Khadija. Enpresa-ria zen, emakume indartsua, elokuentea eta adimen handi-koa. Mahoma profeta baino ho-gei urte nagusiagoa zen, eta be-rak hautatu zuen profetarekin ezkontzea. Ezkondu ondoren ez zuen lana utzi eta ez zen etxean geratu, kontrakoa baizik. Profeta zen etxeko lanak egiten zituen eta Khadijari negozioan lagun-tzen ziona.

Beste adibide bat jartzearren, tituluak ematen hasi zen lehen unibertsitate modernoa ez zen Oxford edo Cambridge izan, Al Qarawiyyin-eko Unibertsitatea baizik. K.o. 859. urtean sortua izan zen Fatima Al Fihri emaku-me musulmanaren eskutik, Ma-rokoko Abbasid Kalifatoan. On-dorioz, uste dut emakume musulmanen gaur egungo ego-era orain dela 1.400 urte zuten berbera dela. «Alaba, ahizpa, emazte, ama, irakasle eta gizar-teko kide trebea», horrela des-kribatzen du euren rola islamak, Koranaren bidez. Erlijio honen jarraitzaile diren emakume mu-sulmanek adibide horri jarrai-tzen diote: boteretsuak dira, gu-pidatsuak, uste sendokoak eta erabakiak hartzeko gai direnak.

Feministatzat al duzue zeuen burua?

S.H.: Bai, musulmana izateak eta nire erlijio eta profetari ja-rraitzeak feminista baino ezin nazake egin.

N.A.H.: Ez, ez dut neure burua feministatzat, ez dudalako inoiz muturretan pentsatzen. Horrez gain, ez naiz hazi emakumeari bere eskubideak kendu dizkion



Bostonen jaioa, nerabezaroan Saudi Arabiara bizitzera joan zen Maryam S. Ahmad (25 urte). GAUR8



gizarte batean, ondorioz, ez dut inoiz beharrik izan emakume izate hutsarengatik kendu dizkidaten eskubideengatik borrokatzeko. Neure burua ez etiketatzen saiatzen naiz. Feminista batzuek dituzten uste eta printzipio batzuk izan ditzaket, baina horiek giza eskubideetan sinesten duen edonorenak ere izan daitezke.

M.S.A.: Feministatzat dut neure burua, hitzaren zentzu guztietan.

Zer da feminismoa, zuen iriziz?

S.H.: Nire ustez, feminismoa gizateriaren ongizateari ekarpena egitea da, benetako emakumea izanda; hau da, emakume izatearekin pozik egotea. Gure egungo gizarteak presio larregi jartzen du emakumeengan, karrera, etxe eta gorputz perfektua izan dezaten.

N.A.H.: Nire iritziz, feminismoa emakumeentzat gizarteko arlo ezberdinetan eskubide berdintasuna lortzeko mugimendua da. Helburua emakumeak ahalduntzea eta gizonen pareko ahotsa ematea da. Muturreko egoera batzuetan, modu negatiboan interpretatu daiteke hori.

M.S.A.: Gizon zein emakumeek eskubide eta aukera berdintasuna izatea hezkuntzan, lanean, errespetuan, harremanetan... Noizbait, oinarritzko printzipio hau kolokan ikusten badut, nire eskubideengatik borrokatuko naiz.

Feminismoa eta erlijioa bateragarriak direla esango al zenukete?

S.H.: Islam originala erlijio feminista da. Koranean bertan emakumea goستن duten eta adibide gisa jartzen duten hainbat bertso daude. Emakume historikoen figura boteretsuekin hazi naiz, profetaren emazte Khadija edo Ama Birjina kasu.

N.A.H.: Historian zehar emakume ezagun sendoak izan ditugu, baita islamiar gizarte modernoan ere. Baina ez dut uste feminismoa eta erlijioa bateragarriak direnik. Islamari buruz soilik hitz egin dezaket, baina nire ustez, ez litzateke egon be-

Emakume musulmanak: janzkerak, rolak eta feminismoa

MARYAM S. AHMAD

NOUF AL HAMLY

SMARA HAMANA

Pakistaneko familia du Maryam S. Ahmadek (25 urte), Bostonen (AEB) jaioa da eta nerabezaroan familiarekin Saudi Arabiara bizitzera joan zen. Oso erlijiosoa da eta «hijab» buruko zapia darama, baina bere burua feministatzat du eta bere ama Pakistanen emakumeen alde egin duen akademiko erlijiosoa da. Nouf Al Hamly (30 urte) Abu Dhabin jaio (Arabiar Emirerri Batuak), hazi eta hezia da, eta New Yorkeko Unibertsitateko harreman publikoetako arduraduna da. «Abaya» izeneko soineko beltza janzten du, nahi duelako. Algeriarra da Smara Hamana informatikaria (36 urte), baina luzaroan Erresuma Batuan eta Frantzian bizi izan da. Musulmana da hura ere, baina ez du bere burua estaltzen.

Jonebati Zabala

harko feminismoaren edo antzeko mugimenduen beharrik erlijioen baitan. Islamak –modu egokian ulertu eta praktikan jarritik gero– ez dio emakumeari bere eskubiderik kentzen.

M.S.A.: Bai. Begien aurrean izan dudana adibiderik argiena nire amarena izan da. Pakistango emakume akademiko erlijioso gutxietako bat da eta mundu osoan zehar ibili da hitzaldiak ematen (Pakistanen hainbat eskualdetan, Britainia Handian, AEBetan, Kanadan eta Ekialde Hurbilean) duela hainbat hamarkadatik hona. Islameko irakaspenen bidez emakumeei jarraibideak ematen dizkie, eta gai/arazo sozialak lantzen ditu: emakumeen aurkako indarkeria kasu.

Gure amak erlijioa irakaspenen bitartez sustatzen du feminismoa. Izan ere, nik dakidala, gure erlijioa feminista da. Beraz, ez nintzateke geratuko feminismoa eta erlijioa bateragarriak direla esatean, are urrunago joango nintzateke, feminismoa gure erlijioaren bidez sustatzen dugula ere esango nuke.

Mendebaldean izandako esperientzia kontuan izanda, zein uste duzue dela emakume musulmanen egoerari buruz egon daitekeen uste oker handiena?

N.A.H.: Erresuma Batuan hiru urtez bizi izan naiz, nire Zientzietako lizentziatura lortzeko, baina Mendebaldean hainbat urtez bidaia izan dut. Emakume musulmanen gaineko uste oker handiena esango nuke orokorra dela mundu mailan: zapalkuntza. Emakumeenganako txarto ulertua, ordea, beste uste oker batetik dator, batez ere islamak emakumeak tratatzen dituen moduagatik. Hala ere, nik nabaritu izan dut, batzuetan, emakume musulmanak euren parekoengatik gehiago izan direla epaituak Mendebaldeko gizartearengandik baino.

M.S.A.: Esango nuke txarto ulertua gure janzkeraren aukeraketaren gainekoa dela. Ez dugula aukeratzen uste dute, edo horrela janztera behartuta gaudela, ez dugula bestelako bizitza estilo-rik ezagutzen, ikuspegi estuko-

Arrazoi pertsonalak direla-eta, euren aurpegirik ez dute erakutsi nahi izan Nouf Al Hamly eta Smana Hamanak. Besteak beste, emakume musulmanen janzkeraz hitz egin dugu elkarrizketan; «burka» ala «hijab»-a daramaten emakumeen inguruan, «abaya»-ren inguruan, edota, besterik gabe, kamiseta eta bakeroekin janzten direnen inguruan.

Fethi BELAID | AFP/GAUR8



ak, kontserbadoreak edota zapalduak garela. Baina geure burua estaltzen dugunean modu iraunkorrean oroitarazten diogu munduari nor garen eta nola aukeratu dugun bizitzea. Izan ere, islama gure bizitzeko modua da, ez da erlijio kontua soilik. Koranean edozertarako jarraibideak datoz, eta janzkera kodea horren baitan dago. Musulman gisa, ezin dugu aukeratu gure erlijiotik zer jarraitu nahi dugun eta zer ez. Baina garrantzitsua iruditzen zait nabarmen-tzea ez dela fede itsua. Geure kasa pentsatzeko eta aukeratzeko gaitasuna dugu, eta Koranak horixe bera agintzen digu, gure aukerak eta ekintzak zalantzan jartzea. Jarraitzen dugunaren atzean dagoen logika ulertzen dugu; dagokion legearen jatorria eta arrazoiketa ikasten ditugu. Koraneko bertsoak gertakari jakinetan daude oinarrituta.

Mendebaldean belo osoa («abaya», «nikab» edo «burka») janztea emakumearen zapalkuntza gisa ikusten da. Zer deritzozue ikuspuntu horri?

S.H.: Guztiok nahi duguna janzteko askatasuna izan beharko genukeela uste dut, gizartean egokia eta errespetuzkoa den heinean. Belo osoa ez zait iruditzen zapalkuntza bat denik. Batez ere komunikabideek sortutako uste okerra dela uste dut.

N.A.H.: Egia da belo eta abaya zapalkuntza zeinu gisa ikusiak

direla. Nire ustez, uste oker hori emakumeek horiek zergatik janzten dituzten ez ulertzetik dator. Batzuetan arrotz ikusten diren gauza txikiak, gauza eza-gunekin konparatzean, buruak asoziazioak egiten ditu hobeto ulertzen saiatzeko. Txarto ulertuak sortzen dira horrela.

M.S.A.: Justu kontrakoa da. Mendebaldean abaya, belo zein buruko zapia janzten duena emakume sendoa da, bere burua kanpoan horrela erakusteko ausardia duena. Gogoratu ez dela batere erraza emakume horrek pairatzen duen etsaitasuna, jazarpena eta diskriminazioa. Nork ez du nahi izan gizartean onartua? Nork nahi du 'atentzio negatiboa' erakarri bere gain? Ez hori bakarrik, badaude musulman ezjakinak buruko zapia eramaten duten emakume musulmanak kritikatzeko dituztenak hijaba ez janzteagatik. Edota beste muturrean, nahikoa moderatu edo liberala ez izatea leporatzen diotenak hori janzteagatik. Nire ustez, iritzi bi horiek errealitatetik urrun daude, erlijioaren inguruko ulermen ezaren ondorioz. Erlijio gupidatsu hau benetan ulertzen dutenak sinesten dute islama emakumea askatu zuen erlijioa dela.

Zer ordezkatzeko du zapi edo jantzi mota bakoitzak? Kutsu erlijiosoa baino ez dute ala tradizio kulturaleri lotutakoak ere badira?

«Islamaren gaineko ulermen ezak sortu du estaltzen den emakumea zapaldua delako ustea, ez islamak berak (...) Estigma heziketaren bidez kendu ahal izango da, gutxika»

S.H.: Jantzi gehienak tradizio erlijiosoetatik datozen interpretazio kulturalak dira, baina kontzeptu originala bera da. Erlijio guztiek apaltasuna eskatzen dute emakume eta gizonentzat. Ezin dut emakume musulman guztien izenean hitz egin; izan ere, pertsona bakoitzak egiten dituen gauzak egiteko arrazoi ezberdinak izan ditzake. Batzuek euren burua adierazteko erabil dezakete janzkera, besteak moda kontuengatik...

N.A.H.: Ez dago gida bat belo edo jantzi mota bakoitzak zer

esan nahi duen esaten duena. Ideia orokorra da abayak eta be-loak apaltasuna ordezkatzeko dutela. Hori jantziaren alderdi erlijiosoa litzateke: emakumea horrela jantzita ez da objektu bilakatzen eta bere izaera fisikoaz harago hartzen da kontuan. Nire iritziz, apaltasun hori belo edo abaya jantzi gabe ere lor daiteke. Horregatik, abaya, erlijioaren eragina eduki arren, tradizio kulturaleri lotuago dago. Orokorrean, emakume musulmanen janzkerak umiltasuna eta euren kultura eta erlijioarekiko errespetua ordezkatzeko du. Baina ahaldundutzea ere ordezkatzeko duela pentsatzen dut.

M.S.A.: Abaya, belo edo nikaba ez dira 'derrigorrezkoak' islamiar irakaspenen arabera. Erlijioak gainetik adierazten du estalita egon behar diren gorputz atal batzuentzako irizpidea, *awrah* bezala ezagutzen direnak. Emakumeen kasuan, gizonezkoen aurrean daudenean, bere gorputza eta ilea dira (aurpegia, eskuak eta oinak izan ezik). Al-diz, beste irizpide bat dago *awrah*-rentzat emakumeen aurrean egonez gero.

Nikab edo aurpegiko beloaren kontzeptua Koraneko bertso baten bidez sortu zen. Alak profetaren emazteak aukeratu zituen aurpegian beloak jartzeko. Kontuan izan agindu hori eurentzat baino ez zela izan. Halaber, feminismoa kontuan izanda, azpimarratu beharra dago gizonek

jarraitu beharreko *awrah* bat ere sortu zuela Jainkoak: euren begirada jaitsi behar dute. Beraz, emakumeei begiratzen dieten gizon musulmanek lehen agindu bati desobeditzen diote.

Zuek abaya edo hijaba janzten duzue? Zer dela-eta?

S.H.: Nik ez dut abaya edo zapia jartzen, baina uste dut nahiko modu apalean janzten naizela. Hijabaren definizioa ez da jantzia soilik, hori zati bat da, baina garrantzitsuen pertsona umila eta xumea izatea da.

N.A.H.: Nik abaya janzten dut, baina hijaba ez. *Sheila* (burua estaltzen duen zapi solte beltza) janzten dut jendaurrean, baina arrazoi kulturalak direla-eta bakarrik. Ez naiz *Muhajjaba* ez dudalako nire ilea estaltzen. Ez dut hijaba janzten arrazoi pertsonalengatik, dena dela, abaya eta sheila erabiltzen ditut nire janzkeran, neure kultura ordezkatzeko gustuko dudalako. Horrez gain, politikak direla iruditzen zait!

M.S.A.: Bai, hijaba janzten dut. Norberaren aukera pertsonala da eta, erlijioa ondo ulertu ondoren eta azterketa sakon baten ostean, bizimodu hori niretzako hartu dut.

Lekuaren arabera aldatu egiten duzue janzkera? Zehazki, atzerri joatean, herrialde ez musulmanetara, zapia edo hijaba erabiltzen duzue? Horri lotuta-



ko estigma edo konnotazioen bat dagoela esango zenukete?

S.H.: Batzuetan nire janzkera aldatzen dut, baina ez arrazoi erlijiosoengatik. Erresuma Batuan bizi nintzenean, ez zidan askorik ardura; izan ere, bertako gizartea toleranteagoa da. Bestalde, Frantziako gizarteak, eta zehazki, Pariseko biztanleek jendea bere itxuragatik epaitzen dute (horregatik uste dut daudela arazoak emakumeek beloa janztearen kontuarekin), eta ezberdinak direnak ez dira onartuak.

N.A.H.: Bai, nire janzkera aldatu egiten dut lekuaren arabera. Kontuan izaten dut pertsonen eta gizartearen sentikortasuna, eta horren arabera janzten saiatzen naiz. Musulmanak ez diren herrialdeetara joaten naizenean ez daramat abaya soinean, dena dela, modu xumean janzten naiz. Guk Mendebaldeko moda daramagu soinean abayaren azpitik eta atzerrira joatean batzuek jendaurrean ere erakusten dugu. Egokia den heinean, eta jendearen sentikortasuna iraintzen ez duen artean, aske gara edozeren bitartez nahi duguna adierazteko.

M.S.A.: Nik ez dut nire janzkera aldatzen atzerrira noanean. Zailtzarik gabe honen inguruan estigma bat dagoela iruditzen zait, bistakoa da. Buruko zapia erabiltzen dut nire balioak erakusteko, nire erlijioaz eta bere irakaspenez harro nagoela adie-

«Zoritxarrez, gizarte gehienetan emakumeak gizonak baino gehiago izaten dira epaituak euren janzkera dela-eta, estereotipoak sortuz, eta komunikabideek estereotipo horiek eraikitzen jarraitzen dute»

razteko. Ez naiz lotsatzen eta, feminista moduan, uste dut nahi beste estaltzeko eskubidea dudala, beste edozein emakumek desestaltzeko duen eskubide bera. Nola jantzi nahi dugun aukatze askatasuna dugu.

Islamaren gaineko ulermen ezak sortu du estaltzen den emakumea zapaldua delako ustea, ez islamak berak. Beraz, esango nuke islamari buruz sakonki ikertzea benetan lagungarria izango litzatekeela uste oker hori argitzeko. Estigma hezike-

taren bidez kendu ahal izango da, gutxika.

Jakingo duzuenez, Europako herrialde batzuetan (Frantzia, esaterako) burka edo nikab bezalako belo osoak toki publikoetan soinean eramatea debekatu dute, eta badirudi beste herrialde batzuek ere joera bera har dezaketela. Zer iritzi duzue debekuaren inguruan?

S.H.: Honi ikusten diodan zentzu bakarra segurtasun arazoak direla-eta izan daiteke.

N.A.H.: Testuinguruaren arabera dela uste dut nik. Pertsonalki ez dut ikusten egokia burka edo nikaba lantokietan erabiltzea; izan ere, ni ez naiz eroso sentitzen aurpegia ikusi ezin diodan norbaitekin hitz egitean. Ez nik ez nire senideek ez dugu nikaba erabiltzen, ondorioz, ni ez naiz nor zer egin beharko litzatekeen edo zer ez esateko. Ulertu dezaket Europako herrialde batzuen arrazoiketa, baina nire ustez gakoa hori gauzatzeko modua da. Nahiz eta hainbat emakumek nikabarekin euren sinesmen eta erlijioa ordezkatzan duten, uste dut posible dela oreka bat aurkitzea, euren identitateari eutsiz debekuak adierazpen askatasuna urra ez dezan. Baina hori nola lortu?

M.S.A.: Benetan espero dut Europako gainerako herrialdeek joera hori ez hartzea. Izan ere, herrialde garatuak, liberalak eta

toleranteak ziren ustea nuen, erlijio eta jatorri guztietako jendea ondo hartzen zutenak eta bertara joaten zirenei eskubide eta aukera berak bermatzen zizkietenak. Adibide bat jartzearen, aipatu Italiako Roberto Maroni ministroak uko egin ziola bere herrialdean hijabaren erabilera debekatzeko legea sinatzeari, argudio hau erabiliz: «Ama Birjinak beloa darama bere irudi guztietan. Nola eskatu ahal didazue hijaba debekatzeko legea sina dezadan?». Adierazpen honi errespetu handia diot.

Mendebaldean, badago buruko zapia zein beloa janztea heziketa edo garapen faltarekin erlazionatzen duenik. Dena dela, «guztiz garatutako» gizarteetan ere emakumeek euren burua estaltzea aukeratzan dute batzuetan. Bi faktore horiek loturik daudela uste duzue?

S.H.: Norbera estaltzea ez da heziketa falta, inteligentzia eta heziketaren adierazle baino. Zenbat eta gutxiago estali emakumea, orduan eta gehiago epaitzen dute bere gorputzagatik, bere adimenagatik izan beharrean. Honek ez dio emakumearen egoerari laguntzen. Zoritxarrez, gizarte guztietan emakumeak gizonak baino gehiago izaten dira epaituak euren janzkera dela-eta; horrela estereotipoak sortzen dira eta komunikabideek estereotipo

horiek eraikitzen jarraitzen dute. Emakume batek hitzaldi politiko sakon bat ematen badu minigona bat soinean duela, entzuleek (gizon zein emakumeek) ez dute mezua gogoratu-

ko, janzkera baino. Ez da gauza bera gertatzen gizonen kasuan. **N.A.H.:** Ez dut ulertzen gaur egun horrelako pentsamendu arkaikoak nondik datozen. Esan bezala, nire ustez hau aldatuz doa. Etorkizunean ez dut uste hijaba desagertuko denik, erlijioa ez baita desagertzen. Bilakaera bat izango duela uste dut, baina inola ere ez desagerpena.

M.S.A.: Pertsonen heziketa eta garapena eta hijabaren erabilera lotzen dituen galdera itxaroten ari nintzen. Ezagutzen duzu Tawakkul Karman? Karman Yemengo kazetaria da, politikaria eta, gainera, giza eskubideen aldeko lanean dihardu. *Women Journalists Without Chains* taldeko liderra ere bada. Kazetariak bere hijabari buruz galdetu ziotenean honakoa erantzun zuen: «Gizakia antzinako denboretan ia biluzik ibiltzen zen eta, bere adimena garatzen joan den heinean, arropa janzten hasi da. Gaur egun ni naizena eta nik soinean daramadanak giza-kiak lortutako pentsamendu gorena ordezkatzan du, eta ez da atzerapausoa. Arropa berriro kentzea izango litzateke antzinako denboretara atzerapausoa». Nire egiten dut bere erantzuna.



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta eta osteopata

Eskolako haurren motxilak, eta abar

Beharginek zein ikasleek gustuko izaten dugu udan etenaldia egitea. Uda atsedenerako, jolasera-ko, kirolerako sasoi egokia da eta, posible denean, hiru hilabeteko oportzarrak hartzea baino gauza ederragorik ez dago. Lanean ez duzue horrelakorik ezagutuko, beraz, aprobetxatu ezazue orain, gazteak! Gauzak ondo badoaz indarberrituta itzuliko gara beharrera, muskulu-giltzadura malgu eta sendoekin alegia. Horrela, kurtso berriari inolako arazo barik aurre egingo diogu. Baina horrekin batera, gehienok gizakiaren gorputzari batere ondo etortzen ez zaizkion postura estatikoetan mantendu beharra izango dugu luzaroan: izan ikasten, izan lan-mahai baten aurrean zutik, izan mugimendu errepikakorrak egiten... Horrek ez digu kalterik egingo, baldin eta kurtsoan zehar gorputzaren zenbait arau errespetatzen baditugu. Zentzu horretan, ikasle zein behargin, antzeko gauzak hartu behar ditugu kontuan minik gabe mantendu nahi badugu.

Gogora ditzagun zenbait puntu garrantzitsu (aipatu baino ez ditut egingo, horri buruz luze eta zabal hitz egin izan baitugu lehenago -ikus webguneko artxiboa-). Bat: “postura on” eta “postura txar” kontzeptuak bazter ditzagun. Izan ere, postura “onena” txarra bihurtzen da denbora gehiegi mantenduz gero; postura “txarrek”, berriz, ez digute inolako kalterik egingo sarri aldatuz gero. Bi: gizakiaren gorputza korrika eta saltoka aritzeko diseinatuta dago. Beraz, gure lanbidea estatikoa bada, kirola egin beharko dugu lanpostuan pilatuko tentsioa (fisikoa eta psikikoa) askatzeko.

Orain arte esandakoekin, bulegoan, dendan edo tailerrean lan egiten duten lagunek eta unibertsitatean diharduten gazteek ba-

dakite gutxi gorabehera zer egin. Baina zer gertatzen da eskolako umeekin? Hurrera gaitzen haien kasura. Hasteko, kontuan har dezagun haurrak uste dena baino indartsuagoak direla. Horrela datoz “fabrikatik”; hiperbabesarekin makaltzen ditugu gero. Horrek ez du esan nahi, jakina, asto-lanean jarri behar ditugunik. Baina ez da gaizki etorriko gure aitona-amonen haurtzaroa gogoratzea: eskolara joan aurretik etxetik etxe esne-partitzen, 25 litroko marmita aldean; eskolara ailegatzeko ere, 4 kilometro bi-dezidorretatik, ortozik; aita marinelari laguntzen, egun osoa arropa bustiarekin jantzita... Hori normala zen lehen, hemen-txe; gaur, berriz, horren erdia ere ez diegu barkatzen Hirugarren Munduan haurrak esplotatzen dituzten enpresei. Horren aldean, non geratzen da sakelaren pisua eta pupitrearen ergonomia? Bere tamaina egokian, esango nuke.

Izan ere, nik ez diot haurren posturek, eta abar, garrantzirik ez dutenik; bai, ostera, haien garrantzia erlatibizatu beharra dagoela. Ez baitzaizkit batere gustatzen kurtso hasieran, urtero, komunikabideetan ikus daitezkeen erreportaje alarmistak: material ergonomikoa ekoizten duten enpresek babestutakoak dirudite! Mesedez: ez ezazue bilatu arazorik ez dagoen lekuan.

Lasaitasuna berreskuratu behar dugu: medikuntza kontrol arruntetan arazo garrantzitsuak ongi detektatzen dira (eskolio-sia, hazkundearen desorekak...), gainontzekoan, eskolara doazen haurrek behar duten prebentzio neurri onena... haurrarena egitea da. Jostatzea, olgetan ibiltzea, jolastea; korrikan, aringa-aringan, saltaka, antxixiketetan. Zenbat eta zakarkiago, hobe. Izerdi flotean amaitu arte. Horrekin, nahikoa eta sobran. •

<http://www.abante.eus>



Haurrak uste baino indartsuagoak dira, baina horrek ez du esan nahi asto-lanean jarri behar ditugunik.

THINKSTOCK

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Azterketa seriorako kasua: nikefobia gure politikan

Garaipenaren jainkosa grekoa zen Nike. Zitzu bizian korrika eta hegan egiten zuen konpetizio denak irabaziz. Phil Knight enpresaria jainkosa horretan inspiratu zen Nike kirol arropa etxea sortzeko. Munduan aski ezaguna den enpresaren logotipoa, Nike jainkosaren hegoetatik sortu zuen. Kirol marka horren propaganda egitea ez da, ordea, lerro hauen funtsa. Nikefobia interesatzen zait niri, kirol psikologian “irabazteari beldurra” adierazteko ikertu den fenomeno. Freud handiak esango zukeen bezala, “garaipenarekin porrot egiten dutenez” hitz egingo dut; izan ere, prozesu inkontziente bezala nikefobia euskal independentismoaren politikan errotuta ote dagoen susmoa dut.

Garaipenak beldurra ematen al du? Plaza publikora atera eta irabazteko anbizioarekin jokatzeko dela esan ohi da. Euskal independentismoak egoera oso zailetan eusteko eta baldintza polit askoak sortzeko gaitasun izugarria erakutsi du.

Baina, partida di-da batean itxi egin behar denean, estresari eta tentsioari eutsi behar zaionean, ez ote gara, behin baino gehiagotan, hankak dardarka hasi eta jokaldia ezin errematatuta geratzen? Edo beste hitz batzuetan esanda, erosoago al gaude norbera bere txiki-munduetan, “Purutasunaren Urrezko Baloiarekin”, gaizki ulertutako koherentzia erlijioso bati otoitz egiten eta konfort betean lo seko? Udara honetan ez dira faltan izan nikefobia sintomak. Zezenketen

kontrako borroka kontu bat da, baina, Nafarroako ez dakit zein herritan bigantxa batek hil duen mutil gazteari gertatua “izorrai!” batekin kalifikatzea oso bestelako zerbait da. Athleticen garaipenak zoriontasun eztanda frenetiko bete sortzen duenean, justu orduan, futbola herriaren opioa dela eztabaida nekosoetan hasia ere nikefobia sintoma da. Donbassen Putinen defendatzaile izan behar da; antisionista eta antipetromonarkiko garenez, Sirian Assad beraren zale; eta, jakina, Tsipras “traidore” bat da. Ederrak patatie! Feminismoan ala presoen aldeko ustezko zenbait dinamiketan ere ikusi dira sintomak. Nikefobiarenak?

Aberria nikefobiak jota ote dugun eztabaidatzeko, hori bai, aberriaz zer ulertzen dugun ere aztertu beharko genuke lehendabizi agian. Izan ere, txoritegi linguistiko betean dago “aberria” hitza, “askatasuna” edo “demokrazia” hitzak bezala. Ez dute esanahi unibokoa: esanahia eman egin behar

zaie. Nire aberrian doinu ezberdinekin hitz egiten duten herritar naturalez lepo daude kaleak, adin ezberdinetakoak dira, barre egiten dute eta ondokoekin adiskidetu egiten dira, energia positiboa zabaltzen dute, kontuan hartuak izatea eskertzen dute. Badute orain eta hemen, munduko toki honetan, eta ez inon, ez beste inon, egoteak duen balorearen kontzientzia. Badakit nire aberriaren ideia ez dela denetan onena, ez dela posible den bakarra, baina sartu nahi duen oro batzeko gai den heinean, onena iruditzen zait. Herriarra delako, jendea duelako abiapuntu eta helburu, pertsonaren neurrian bizi delako, bizi-bizi eta biziki.

Zentzu horretan, nire aberriarentzat onena nahi dut, arrakasta, garaipena. Eta aukera denetan hoberena, independentziarena dela konbentzituta nago. Hartara, irabaztera ausartu eta garaipenari beldurra galdu behar zaiola uste dut. Zer da, baina, garaipenari beldurra galtzea? Errealitatea den bezala onartu eta errealtate horri aurre egitea

Garaipenak beldurra ematen al du gurean? Erosoago al gaude gure txiki-munduetan, «Purutasunaren Urrezko Baloiarekin», gaizki ulertutako koherentzia erlijioso bati otoitz egiten eta konfort betean lo seko?

da, ez gustatuko litzaigukeen errealtatea irudikatu eta bertan gozo egotea; argudio propioen purutasuna mantenduz, porrotetik porrotera noizbait irabaziko delakoan gauean lasai lo ez egitea da; oraingoan irabazten ez bada, hurrengo batean, datozen belaunaldiak irabaziko dutela ez onartzea da.

Errealitatera atxiki eta lagunarte justuago batetarantz urratsak eman behar ditugu. Jaso dugun herentziatik abiatuta, hura errentabilizatuz. Bide bazterrean inor uzteke. Nekatuta edo desilusionatuta geratu direnak erreskatatuz, zainduz eta goxatuz. Kontraesan printzipal eta sekundarioen inguruko eskola zaharreko irakaspenak zainduz, sektorialak diren kontu orotatik printzipioak egiteke. Egiturak berregitea da, gehiengo bilakatzeko borondatea duten akordioak lantzea, indar erlazio berriak behartzea, manio-brarako espazioak sortzea, zentzuz jokatzeta. •

AHOZKO KOMUNIKAZIOA

Politikariak, euren ahozkotasuna hobetzera behartuta



Iñigo Urkullu, telepromterra aurrean duela.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS



Barkosen dohainetako bat da ahozkotasuna.

I. ZABALETA | ARGAZKI PRESS



Gehiago sinestea falta ei zaio Arraizi.

A. CANELLADA | ARGAZKI PRESS

POLITIKA / Aimar Etxeberria Korta

Aspergarriak eta errepikakorrak izan ohi dira politikarien hitzartzeak eta, ondorioz, herritarrengana iristeko gero eta zailtasun gehiago dituzte. Konturatu dira ordea arazoak, eta gero eta gehiago dira ahozko komunikazioari garrantzia ematen diotenak. Ahozkotasuna hobetzen laguntzen die Manu Marañonek erakunde eta politikari ezberdinei.

Telebista edo irrati piztea besterik ez da politikarien arteko tertulia edo hitzartze ezberdinak entzun eta zerbait gaizki doala ohartzeko. Batez ere euskaraz ari direnean sortzen da arazoa; herritarrekin konektatzeko arazoak dituzte. Hitzartze errepikakorrak, monotonoak, gatzik gabekoak, asperdura sortzen dutenak, finean, «hitzartze politikoak». Jendartearen eta klase politikoaren arteko distantzia etengabe handitzen ari dela esan ohi da,

eta ez da ez arrazoi faltagatik izango.

Orokorrean, politikarien ahozkotasunak duen gabeziaren ondorio bat besterik ez da aurreko baieztapena. Hitzak dira politikarien arma nagusi, eta hauen erabilera egokiak baldintza dezake baten porrota edo garaipena, hitzen bitartez hautesleria konbentzitzean baitago gakoa. Baina, dirudienez, ez dira oraintsu arte ahozkotasunaren garrantziaz jabetu, eta arreta handiagoa jarri dute mezuan –hau da, esan behar duten horretan– hau herritarrengana

eurek nahi duten moduan iristean baino –alegia, mezuaren transmisioan baino–.

Bikain ezagutzen ditu aurreko lerrootan luzatutako baieztapenak Manu Marañonek. Zuzenbidean lizentziatua bera, hogeitaz egin du lan EHNE sindikatuarentzat. Haren arabera, sindikatuko jarduna izan du «benetako unibertsitate» ahozkotasunaren mundura salto egin aurretik, bertan eginiko urteetan ahozko komunikazioa lantzea tokatu baitzaio hainbatetan. Behin EHNEko jarduna amaituta, «birziklatu» eta ahozkotasunaren inguruko formakuntza jasotzen hasi zen Manu Marañon, EITBk eta EHUK elkarlanean antolatutako Irrati eta Telebista Komunikatzaileentzat Masterra eginez, Estatu mailako hainbat profesionalen eskutik formakuntza jasoz edota Pedro Mendiberekin hainbat saio eginenez, esaterako.

«Bere garaian konturatu nintzen gabezia handi bat zegoela ahozko komunikazioan, eta horretan ekarpenen bat egin neza-keela iruditu zitzaidan», dio Marañonek. Hala, erakunde eta politikari ezberdinei formakuntza emateaz gain, hauek ahozko komunikazioaren garrantziaz sentsibilizatu nahi ditu. Horretarako formazio saioak eskaintzen ditu eta, «Jendaurtean hitz egitea» titulupean publikatu zuen liburu baten harira, herriz herri ere ibili izan da hitzaldiak ematen, liburu aurkeztuz eta, bide batez, ahozkotasunaren inguruko bere iritziak plazaratzen.

Kontziente da gero eta gehiago direla ahozko komunikazioaren garrantziaz jabetu direnak, «ohartu direlako produktu eta ideia onak erdibidean geratzen direla maiz aurkezpene eskasak egiten direlako». Bestalde, uste du gaur arte garrantzia gehiegi


«Normala al da politikariek euren hitzartze gehienak irakurriz egitea? Gainera, irakurtzen dituzten testuak korapilatsuak eta konplikatuak izan ohi dira»



Idoia Mendiak, beti bezala serio. Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS



Quiroga, garai berrietara egokitu nahian. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS



Istorio pertsonalak baliatzen ditu Sanchezek. A. LOIOLA | ARGAZKI PRESS

eman zaiola formakuntza teknikoari. Elementu guztiek bat egin dute, beraz, ahozko komunikazioaren aro berri honetan.

ETIKA OINARRIAN; GABEZIAK BISTAN

Goazen bada ahozko komunikazioan trebea den politikari batek izan beharko lituzkeen ezaugarriak aztertzeraz. Manu Marañonek elementu bat jartzen du guztiaren erdian: etika. «Etikak esan nahi du konpromisoa, sinesgarritasuna, koherentzia, umiltasuna... Jendaurrean hitz egiten dugunean sinetsi egin behar gaituzte, hau da, komunikatzaile on batek lehendabizi pertsona ona izan behar du, eta ondoren komunikazio teknikak menperatu behar ditu», adierazi du. Zentzu horretan, etika galtzen bada, ez du ezertarako balio Marañonen arabera «ahots polita izateak, eszenaratze on batek edota komunikatzaile on bat izateak».

Etika bada ere guztiaren zentroan kokatzen duen elementua, badira beste sei ezaugarri ahozko komunikatzaile on batek menperatu beharrekoak. Lehenengoa sinpletasuna litzateke, hau da, argi hitz egitea. «Hizkuntza alderdikoietatik alde egin behar dute alderdi politikoek. Gehiegi mintzatzen dira euren hizkuntza propioan, konaturatu gabe jendeak bere egunerokoan ez duela hizkuntza hori erabiltzen», azaldu du.

Beste gako bat jendea ustekabean harrapatzea da Marañonen arabera. Egungo aurkezpen politiko gehienak «esperotakoak, aspergarriak eta errepikakorrak» direla uste du, jendea ustekabean harrapatzeko inolako gaitasunik ez dutenak: «Jendea-ri espero ez duena emanez gero titular on bat, irudi on bat lortuko dugu». Zehatza izateari ere bere garrantzia ematen dio. Politikagintza baieztapenez beteta

dago, baina baieztapen horiek ebidentziekin aurkeztu behar direla azpimarratu du Marañonek: «Horregatik, politikariei eskatuko nieke datu eta informazio gehiegirik eman gabe beraien proposamenetan zehatzagoak eta fidagarriagoak izatea».

Horrek sinesgarritasunarekin badu loturarik, honek etikarekin duen bezala. «Beraiek dira esaten duten hori sinetsi behar duten lehenak», dio Marañonek, eta, horrez gain, soluzio edo proposamenetan gehiago zentratu behar dutela iruditzen zaio, «zehatzak eta egingarriak diren proposamenetan». Jendeak bihotzarekin bozkatu eta ondoren emaniko boza buruarekin arrazoitzen duela-eta, hitzartze emotiboek eraginkortasun handiagoa dutela uste du, are gehiago istorioak kontatzen badira. «Gehiago ikasi behar dute jendearen bihotzera iristen. Hautesleriaren babesa lor-

tzeko ondo dago gauzak zuzen azaltzea edo informazio zehatza ematea, baina hori emozioekin uztartu behar da. Jendarteak bihotzarekin erabakitzen du, nahiz eta arrazoi bidez ahaleginduko den justifikatzen».


Horiek badira ahozko komunikazioan maisu izan nahi duten politikariek aintzat hartu beharreko elementuak, honakoa da egin behar ez dutenaren adibide zerrenda, kontuan hartu beharrekoa hau ere. Politikariek euren hitzartzeetan duten irakurtzeko ohiturarekin amaitzea izango litzateke lehenengo urratsa. Horren harira, galdera luzatu du Marañonek: «Normala al da gure politikariek euren hitzartze gehienak legebiltzarrean edo agerraldi publiko batean, adibidez— irakurriz egitea? Gainera, irakurtzen dituzten testuak korapilatsuak eta konplikatuak izan ohi dira gehienetan. Horrekin ondoriozta daite-

ke politikan dagoen maila zein den!».

Bestalde, hitzartzeen prestaketa lanetan ere gabezia nabarmenak dituztela uste du: «Ez dute kontuan hartzen beraien lehenengoa eta ofizioaren oinarria ahozko komunikazioa dela». Denbora gehien mezua lantzen pasatzen dutela iruditzen zaio, eta hori akats bat dela uste du, «garrantzitsuagoa baita esaten dena baino nola esaten den». Hor kokatzen ditu Marañonek eszenaratzea, gorputz espresioa, ahotsaren tonua edota begiradak bezalako elementuak.

Politikarien hitzartzeek naturaltasuna ere falta dutela adierazi du, eta naturaltasuna lortzearena oso prozesu artifiziala dela gaineratu du: «Berau lortzeko lan asko, entrenamendu asko, praktika asko eta ordu asko sartu behar da». Eta aurpegia gehiago eman behar dutela iru-

«Politikariek egin behar dutena da herrietara joan, aurkezpenak egin, hanka sartu, formatu ezberdinetan praktikatu, esperimentatu, istorioak kontatzen ikasi...»



Euskal politikariek gain, Estatu espainoleko hainbat politikari ere aztertu ditu Marañonek, Pedro Sanchez, Pablo Iglesias, Albert Rivera eta Alberto Garçon kasu. P. MARCOU/J. MANTEROLA | AFP/GAURB/ARGAZKI PRESS

ditzen zaio, hizlarien eta jendearen artean mahai gehiegi, atril gehiegi eta oztopo gehiegi egon ohi direla azpimarratuz.

NOLA EGITEN DUTE POLITIKARIEK?

Teoriatik praktikarako saltoa eginez, egun plaza publikoan diharduten hainbat politikariren inguruko bere hausnarketa luzatu du Manu Marañonek. **Iñigo Urkullu** EAEko lehendakariaren inguruan dio ziurtasunari lehentasuna ematen ahalegintzen dela bere hitzartzeetan: «Koherentzia eman nahi dio bere hitzartzeekin Gobernuak duen estrategiari, kudeaketan zentratzearen alde garatzen duen jardunari». Hala, ausardia puntu bat falta zaiola nabarmendu du, «indar eta energia gehiago behar du».

Nafarroako lehendakari izendatu berri duten **Uxue Barkosen** inguruan dio bere ibilbidearen gakoa ahozko komuni-

kazioa izan dela: «Berak badaki, telebistan lan egin duelako, zernolako garrantzia duen zuzena eta argia izateak. Oso ondo egiten du, zaindu egin duelako». **Hasier Arraiz** Sortuko presidenteari bere buruarengan sinestea falta zaiola uste du, «ongi egiten duela sinestea». «Konfiantza falta puntu bat antzematen zaio, baina hobekuntza nabarmena egin du. Mezu argi eta ulergarriak ematen ditu, eta ahalegin handia egin du didaktiko, ulergarri eta hurbila izate bidean», azpimarratu du. Hala ere, Arnaldo Otegiaren pertsonak nolabaiteko eragina egiten diola uste du, bere ahozko gaitasuna medio.

PSEko idazkari nagusi den **Idoia Mendiaren** inguruan, berriz, serioegi ikusten duela dio Marañonek. Euskararekin lan gehiago egin behar duela iruditzen zaio, baina alderdiaren lidergoa ongi hartu duela eta

pentsatzen duena esateko orduan ausardia duela gaineratu du. EAEko PPren presidente den **Arantza Quirogak** alderdiaren mezuak egungo egoera politikora egokitzeke egin duen saiakera txalotzen du, euskal gaiez mezu berriak botatzen hastea ez dela erraza gaineratuz.

Estatu espainoleko plaza politikora begira jarrita, PSOEko buru **Pedro Sanchezek** potentzialitate handia duela aurreikusten du Marañonek: «Bere agerraldietan istorio pertsonalak sartzen saiatzen da, baita bere gorputza erakusten ere, atril baxuak eta abar erabiliz». Podemoseko **Pablo Iglesiasen** inguruan dio haize berria sartu duela espainiar politikan, «jakin duelako une konkretu batean mezu indartsuak botatzen». Baina umilagoa eta hurbilagoa izatea falta omen zaio.

Ciudadanoseko **Albert Rive-**

ralorreen egin duen formakuntza goraipatzen du Marañonek, eta bere arrakastaren gakoetako bat izan dela gaineratu du: «Ikusten da ez duela berezko zerbait, asko landu duen kontu bat baizik». IUko **Alberto Garçon**, aldiz, egin gabeko produktu bat bezala ikusten du: «Indarra eta lidergoa falta zaio». Hala ere, pertsona umila eta hurbilekoa dela azpimarratu du, «ezkerrekoa eta koherentea».

EZ DA JAIOTZEN, EGITEN EGITEN DA

Gauza gehienekin gertatzen den bezala, ahozko komunikazioan ona den pertsona bat ez da jaiotzen, egin egiten da. «Prestakuntzan, praktikan eta behatzaile ona izatean dago gakoa», dio Marañonek. Pablo Picasso margolariaren aipu eza-gun bat baliatu du bere filosofia laburbiltzeko: «*La inspiración existe, pero tiene que encontrarse trabajando*». Zentzu horre-

tan, hainbat gomendio luzatu ditu Marañonek ahozketasuna hobetu nahi duten politikariei zuzenduta. Garrantzitsuen praktikarena da: «Politikariek egin behar dutena da herrietara joan, aurkezpenak egin, hanka sartu, formatu ezberdinetan praktikatu, esperimentatu, istorioak kontatzen ikasi...».


Behaketak ere garrantzia berezia hartzen du ikaste prozesuan Marañonen arabera. «Behatzeak esan nahi du ikustea jendeak ondo egiten dituen gauzak zeintzuk diren eta, zergatik ez kopiatu?», galdetzen du. Berak, adibidez, atzeratuta ez geratzeko eta gauza berriak ikasteko orduan bere ofizioan dagoen jendea jarraitzen du, eurek ondo egiten dituzten gauzak kontuan hartu eta bere estiloan garatuz. «Hau ez da magia, gimnasia baizik». Eta gimnasiak entrenamendua eskatzen du, praktika.

LEHEN

ZUK ALKERATU BAI ALA EZ, MARY,
BAINA ZURE TXONDORRARI KEA
DARIO DAGOENEO ETA NI
EZ NAIZ BETIKO EGONGO.
GAINERA, GERO IRAILA
ETORRIKO DA
ETA...



IRAILA?!
...ZER DA
IRAILA?



Unai
Iturriaga

iRRITZIA:

ORAIN

IRAILA MAITAGARRI BAT DA,
AINGERU SALBATZAILE BAT.
XOLOMO GANGSTAH GUZTIEN ETSAIA,
GARAGARDOKI MITXELO KAPITAINAREN ZARTAILUA,
KATXI ETA KOMUN KOMUNITARIOEN ERAISLEA
ETA GAINERA...



zugaz/
art

...HAURRAK
ESKOLARA EROATEN
DITU!!
BIBA IRAILA!!



TELEBISTA ETA BALIOAK

Antzeko balioak hedatzen ditu telebistak nerabeen artean munduan zehar

 **JENDARTEA /** Aimar Etxeberria Korta

Telebista eta berak nerabeengan hedatzen dituen balioak, makina bat gurasoren artean buruko mina sor dezakeen gaia. Bada, gaia iker-tzea erabaki zuen Leire Ugalde Euskal Herriko Unibertsitateko Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saileko langileak. *“La percepción de los valores en personajes televisivos y los hábitos televisivos en adolescentes: un estudio transcultural”* titulupean, Mexikoko Guadalajara, Estatu espainiarreko Malaga, Irlandako Dublin eta Donostiako 566 nerabek telebistatik jasotzen dituzten balioak aztertu dituen ikerketa taldeko kide izan da, genero eta lurralde aldagaiei azpimarra berezia jarritz.

Psikodidaktikan doktore, Pedagogia Terapeutikoan eta Psikopedagogian lizentziaduna, Haur Hezkuntza espezialitatean diplomaduna eta sexologoa, curriculumaren poltsa aski bete du Ugaldek. Aipatu ikerketa master amaierako tesia da: «Nire tesiaren zuzendari izan diren Concepcion Medrano Samaniego eta Jose Ignacio Martinez de Morentin, aldi berean, Unesco ren katedra bateko zuzendari eta idazkari ere badira. Eurek jada abian zuten ikerketa bat [“Balioen pertzepzioa eta telebista ohiturak detektatzea maila transkulturalen”], eta nire tesia ikerketa horren baitan kokatzeko eskaintza egin zidaten».

Azken lau urteak eskaini dizkio Ugaldek ikerketari, eta denbora tarte horretan hiru hilabete egin ditu Dublinen bizitzen. Lau herrialde ezberdinetako 14 eta 19 urteko nerabeek telebistatik jasotzen dituzten balioak aztertu dituzte; nerabe batzuekin *on line* bidez jarri dira kontaktuan, beste batzuekin, aldiz, presentzialki egon dira: «*On line* jasotako ekarpenei dagokionez, ikerketan parte hartu nahi zuten ikastetxeekin egiten genuen harremana lehenengo. Ahalegintzen ginen ikastetxe horien ezaugarriak oso muturrekoak ez izatea; oso jende elitista joaten den ikastetxe pribatu bat ez iza-

Generoa eta kultura ardatz hartuta, Mexikoko Guadalajarako, Malagako, Dublineko eta Donostiako nerabeek telebistatik jasotzen dituzten balioak aztertu dituen ikerketa taldeko kide izan da Leire Ugalde. Aipatu ardatzak baino faktore sozioekonomikoak garrantzia handiagoa izan dezakeela ondorioztatu dute.

tea bilatzen genuen adibidez, baina ezta auzo marjinal bateko ikastetxe bat ere». Hala ere, airtortu du Dublingo kasuan desorekatu egin zaiela ikastetxeen artean bilatutako oreka hori: «Gainerako ikastetxe guztiak maila ertainekoak ziren, baina Dublingoa maila baxu-ertainekoa zela esan daiteke». Eurentzat garrantzitsuena kultura eta genero arteko ezberdintasunak aztertzea izan da, baina ohartu dira faktore sozioekonomikoak pisu handia hartzen duela.

Garbi utzi nahi izan du Ugaldek eurak ez direla nerabeen etxeetan sartu, baizik eta eurei hainbat aldagairen inguruan galdetu dietela horien inguruko iritzia eman dezaten. Zentzu horretan, besteak beste, balioen hautematea, familiaren bitartekaritzaren hautematea, familia klimaren hautematea, telebista aurrean pasatzen duten denbora, edukiak zer puntutaraino iruditzen zaizkien errealistak, zergatik ikusten duten telebista, zer programa mota ikusten dituzten eta telebistako pertsonaiekiko identifikazioa bezalako aldagaiak aztertu dituzte.

IKERKETAREN ZENBAIT ONDORIO

Leire Ugalderen arabera, ikerketaren baitan atera duten ondorio garrantzitsuena telebistak hedatzen dituen balioen joera homogenizatzailea da, hau da, «aldeak espero genituenak baino txikiagoak izan dira. Topatu ditugu, baina agian ez hainbeste». Zer esan nahi du horrek? Mexikoko, Estatu espainiarreko, Irlandako eta Euskal Herriko nerabeek telebista kontsumo bera dutela? Neska eta mutilek balio berak jasotzen dituztela telebista ikusten dutenean?

Ugaldek azaldu duenez, aldagaiak banaka hartu dituztenean, joera homogenizatzailea eman da. Baina, hori ikusita, zerbait konplexuagoa egitera jo dute eta konbinazioak egiteari ekin diote; eta hor aurkitu dituzte ezberdintasunak. Tipologia edo taldekatzeak egiten ahalegindu dira, eta horren ondorioz atzeman dituzten ezberdintasunak dira, Ugalderentzat, tesiaren ekarpen nagusia.




Adibidez, eta lurraldetasunari erreparatuta, Dublingo kasua da aipagarriena. Bertan, gehiago egiten dute balio indibidualisten alde. Arrazoia azterketan parte hartu zuten nerabeen maila sozioekonomikoa izan daiteke: «Dublingo auzo gatazkatsu eta marjinaletan bizi ziren; desegituratutako familia ugari zegoen, baita drogei lotutako arazo anitz ere». Beste herrialdetako nerabeen aldean garrantzi handiagoa ematen diote irlandarrek diruari, gauzak izateari: «Alor horietan zituzten, izan ere, gabeziarik handienak».

Genero arteko aldagaiari dagokionez, tipologia konplexuagotan sartu behar izan dute kontsumo profileen bereizketak aurkitzeko. Hala –lau kontsumo profil zehaztu dituzte–, ikusi dute kontsumo profil batean nesken presentzia nabariagoa dela, «txismeak, *talk show*-ak eta gisa horietako programen kasuan, hain zuzen». Nesken telebista ikusteko helburu nagusia ondoren lagunekin elkarriketean aritzeko gaia izatea dela ondorioztatu dute.

Mutilen kasuan, berriz, helburua «informatuagoak egotea» dela ondorioztatu dute, eta, horretarako, programa kulturalak, umorezkoak eta gisa horretakoak kontsumitzen dituztela ikusi dute. «Nesken kasuan oraindik ikusten dugu, pertsonaiarekin identifikatzekoan, emozionalki identifikatzea, hau da, bere sentimenduak sentitzea hobesten dela», dio Ugaldek. Mutilen kasuan, berriz, pertsonaiarekiko antza izatea da hobesten dena.

Gurera etorri, Donostiako nerabeen profila «polita» dela dio Ugaldek: «Familia bitartekaritzan, adibidez, hautematen dutena da bitartekaritza arduratsu bat; hau da, beraiek ikusten dute arau batzuk ezartzen zaizkiela, funtzio bat betetzen dela gurasoen partetik, beraiekin batera esertzen direla telebista ikusi eta komentatzera...». Era berean, familia klimari dagokionez ere, kohesio eta komunikazio egokia dutela atzematen dute Donostiako nerabeek Ugalderen arabera. «Orduan, bai klima eta bai bitartekaritzaren



Batez beste egunean bi ordu eta erdi ematen dituzte telebistaren aurrean Donostiako nerabeek. Dublingoek, aldiz, lau ordu eta erdi igarotzen dituzte.
THINKSTOCK

hautematea ona da, giro egoki bat eta bitartekaritza arduratsu bat hautematen dutelako nerabeek», adierazi du ikerlariak.

Horrez gain, autotraszendentzia tipologiaren baitan kokatzen dira gehienbat Donostiako nerabeak. Tipologia honen arabera, telebistan ikusten dituzten pertsonaiak besteen ongizateaz arduratzen direnak dira, baina, era berean, askeak dira beraien ideia eta ekintzetan. Gainera,

Donostiako nerabeak dira batez beste telebista aurrean denbora gutxien igarotzen dutenak: bi ordu eta erdi egunean. Aldiz, Dublinekoek lau ordu eta erdi egiten dituzte batez beste eguneroko telebistaren aurrean.

ESTEREOTIPOEN ERREPRODUKZIOA

Mutil eta nesken kontsumo profilari dagokionez ematen diren ezberdintasunei erreparatuta, ikus daiteke gizarte mailako estereoti-

po batzuk agertzen direla. «Mutil eta nesken arteko kontsumo profilak ez dira hain ezberdinak, baina agertu diren ezberdintasuntan badago estereotipoekin lotutako kutsu bat», dio Ugaldek. Finean, komunikabideak gizarteratzeko agente garrantzitsuenen artean kokatzen direla azpimarratu du; «familia, eskola, lagunak eta komunikabideak». Hein batean, dio gizartea bera dela nerabeei erakusten diena zer den interesgarria eta, ondorioz, zer den ikusi beharrekoa: «Umeak ez dira jaiotzen zer programa ikusi nahi duten esaten. Hori heziketa baten ondorio da, eta telebista heziketa horren parte da».

Hortaz, estereotipo hauek gizartean bizirik jarraitzen dutela eta, galdera luzatu du: «Zer lan mota egin dezakegu nerabeei edukien aurrean kritikoagoak izan daitezen erakusteko?». Horren aurrean, alfabetatze mediatikoaren ideia aldarrikatu du.

Neska eta mutilen telebista kontsumo profilari erreparatuz gero, gizarte mailako estereotipo batzuk agertzen direla ondorioztatu dute

Donostiako nerabeen kontsumo profila ez dela kezkatzekoa dio Ugaldek, besteak beste, telebista aurrean igarotzen duten denboragatik edo duten familia giro eta bitartekaritzagatik



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Kamikazearena

Udan beti apur bat kamikazeago sentitzen naiz. Errazago ematen ditut pausoak eta errazago sartzen dut hanka, errazago erori eta errazago altxa, errazago gogoratu gauzak eta azkarrago ahaztu, bizitzak gutxiago pisatuko balit bezala. Bigarren Mundu Gerran, meta-anfetaminaz ipurtzuloraino, yankien kontra beraien hegazkinak lehertzen zituzten pilotu japoniarren ausardia bera sentitzen dut lantzean behin. Hain da laburra gure eguzkialdea bestela, ze galtzontzilo gabe ibiltzera ohitu orduko, artilezko galtzerdiak jantzi behar izaten ditudan etxean egoteko. Horregatik egiten zait hain erraza erabakiak hartzea eta erabakiak hartzeari uztea uda partean. Finean, bizitza abiadura bizian pasatzen den tren bat dela onartzeak ez didalako horrenbesteko kezkarik sortzen, gaur tropikal eta etzi siberiar esnatuko den hiri honetan. Gaue-ro oheratzen naizelako pentsatuz; bihar ere horituko du eguzkiak han nonbaite-tik. Edo Samuraien beste esaera zahar hura gogoratuz bestela: “Zergatik kezkatzen ditu beraien orrazkerak, burua moztuko badiete?”.

«Kamikaze» hitzak, jatorriari erreparatzen badiogu, «haize jainkotiarrak» esan nahi du japonieraz. 1247an Kublai Khan enperadore mongoliarrek Txina osoa konkistatu eta bere ontziteria irla inbaditzera bidali zuenean, japoniarrak mongoliarren erasoalditik salbatu zituen tifoari jarritako izena da, zehazki. Gero-ra, Mendebaldean, Bigarren Mundu Gerraz geroztik, beste modu batera itzuli eta ulertu izan bada ere. Historia nork kontatu; batzuentzat heroi nazionalak direnak gaurdaino, behin gerra galdurik bere buruaz beste egitera behartu zituzten gizagaixoak dira beste askoren akorduan. Etsaiaren nagusitasuna ikusirik edonola ere hiltzera kondenatuta zeuden eta egin zezaketen onena egin zuten pilotutzat ondratzen dira leku batzuetan, eta herrialdearekiko gehiegizko debozio irrazional baten emaitza tamalgarritzat jotzen dira beste batzuetan. Emaita, egia esan behar bada, ez zen belarriekin txaloak jotzeko modukoa izan. Eguzkiari nondik begiratzen diozun, hemen ere. Ohore eta obedientzia erakustaldi gain-

diezina, erokeria hutsaren aurrean. Arrazoia eta irrazoia. Uda eta negua. Enperadorea edo pilotua. Aurrera egin ala gertatu.

2011ko irailaren 11n, Japoniako uretan izandako lurrikara eta tsunami baten ondorioz, Fukushima gertatutako istripu nuklearraren ondorioak “konpontzera” bidalitako ingeniari, soldadu, suhiltzaile eta gainontzeko 800 brigadista haiek ere heroi nazionalak dira gaur uharteko biztanle askorentzat. Beste batzuen kakak garbitzera joandako kamikaze errukiorrak beste pila batentzat. Azken finean, eta hori da balio duena, alfonbrapean ez kututzen den zikinkeria ikusi nahi ez izateko joerak elkartzen gaitu denok. Horrek, eta gure hezurak gordeko dituen 2x1eko lurpeko zuloak. Hemen ez delako inor libratzen. Denok egin izan dugu noizbait bekaturen bat edo beste. Baina lasai egon zaitezketen aurrerantzean, zorionez; norbere puzkerrak usaintzea, azken ikerketek diotenez, ona omen da minbiziaren kontra. Beraz, badakizue, alolo egin aurretik, burua izarapean gorde eta ekin kamikazearena egiteari egunean behin gutxienez.

Esanak esan, eta gertatuak gertatu, Fukushima zentral nuklearra berriro martxan jarriko dute hemendik gutxira, eta gu berdin berdin hartuko gaitu loak iparraldera begira jarritako ohe biskoe-lastikoan. Ez dun deus ikusi Hiroshiman. Ohore atomoaren heroiei, erreaktorea menderatua izan da. Txernobyl, Fukushima, Garoña eta munduan zehar barreiatu-ko beste 440 lapikotzar horiek. Balerria handien lekuak denak.

Pentsatu gabe ikastea alferrikakoa zela zioen Konfuzio filosofo txinatarrek, eta ikasi gabe pentsatzea, arriskutsua.

Japoniarren beste esaera zahar batek, gezurra badirudi ere, garaipenetik ezer gutxi eta porrotetik asko ikasten dela gogorarazten digu. Nik, gaur-gaurkoz, eguzkia gehiegi urrundu aurretik eta aukeratzen utziko balidate, Fukushima erreaktorea itzaltzeko lanetan ibilitako ingeniariak guztiz horditurik Tokioko taberna bateko komunetan idatzita utzitako haiku hura nahiago nuke harri batean zizelkatzeko: “Azken orrira ailegatzen zarenean, itxi liburua”. Eta bitartean, kamikaze maiteok, gozatu udaraz geratzen dena. •



«Kamikaze» hitzak, jatorriari erreparatzen badiogu, «haize jainkotiarrak» esan nahi du.

GAUR8

{ koaderno } **Garazi Goia**

Probokazioak

Aspaldidanik jarraitzen ditut Michel Houellebecq idazle frantsesaren lanak, baita bere ibilbidea ere. “La Carte et le Territoire” liburuarekin Goncourt sari entzutetsua irabazi zuen 2010. urtean, baina aurretik beste liburu eza-gun eta arrakastatsu asko argitaratu da. Ezizen asko jarri dizkiote idazleari: *enfant terrible*-a, *dandy* erreakzionarioa edota tonu bipolarra erabiltzen duen idazlea. Hain zuzen, elkarrizketa batean berak esan zuen bi ikuspegi osagarri erabiltzea gustuko duela: patetikoa eta klinikoa. Alde batetik, analisi hotza, diseizioa; bestetik, emozioak eta lirika. Eta sortu duen “pertsonaia” hori esplotatu dute kazetariak komunikabide guztietan. Horrela, behin eta berriz goiburuak irabaziz joan da Houellebecq probokatzailea.

Uda honetan irakurtzen ari naizen liburuetako bat bere azken nobela da, “Soumission” izenburuduna. Argitaratu zenean polemika piztu zuen berriro ere, idazleak jorratzen duen gai nagusia tarteko: erregimen islamista baten gobernupean dagoen Frantzia baten narrazio futurista egi-ten du, egungo Frantziaren irudi deformatu bat azalduz. Politikarekin ilusioa galduta duten eta, aldiz, kirolari eta aktoreengatik mirespena sentitzen duten pertsonaiak dira protagonistak, azkenetan dagoen sozialdemokrazia baten testuinguruan kontatuta. Ea probokazio moduan idatzi zuen galdetu ziotenean honakoa esan zuen: «Ez ditut gezurrezkoak iruditzen zaizkidan gauzak jendea urduri jartzeko esaten. Nire ustez sinesgarria den garapen bat erakusten dut nobelan».

Iritzi eta erreakzio asko sortu ditu liburuak: islamofobia ukitua duela leporatu diote hainbatek; beste batzuek eztabaida bat probokatzeko duela esan diote. Atentzioa eman didaten pare bat aipatzearen, Alain Finkielkraut filosofoak etorkizun onargarri batez ari dela esan zuen, eta “Libération” egunkariko zuzendari den Laurent Joffrinek honakoa idatzi zuen: Café de Floren –Parisko intelektualak biltzen diren kafe-etxean– Marine Le Pen-en (hori da protagonistetako baten izena; probokatuz, berriro ere) aulkia berotu baino ez du egiten, alegiazko musulmanen inbasioari buruzko iritzi ultraeskuindarrak literaturaren zirkuluan nahastuz. Argitaratu zenetik zortzi hilabete pasatu direnean, frantsesez bakarrik 600.000 ale baino gehiago saldu dira. Urtarrilaren 7an kaleratu zen, kasualitatez “Charlie Hebdo” egunkariko sarraskiaren egun berean.

Biktimetako bat idazlearen lagun mina zen. Ordutik bizkartzainekin dabil Houellebecq.

Azken egunetan, ordea, beste gai batekin bete ditu egunkariak idazleak: “Michel Houellebecquen sei bizitzak” izenburupean, “Le Monde” egunkariko Ariane Chemin kazetariak idazlearen erretratu bat idatzi du, sei kapituluz osatutako idazlan luzean. Uda hasieran kazetariak Houellebecqui hitzordu bat eskatu zionean idazleak ezezkoa eman zion eta, are gehiago, ez zion baimenik eman proiektuarekin aurrera egiteko. Horrez gain, bere lagunei kazetariarekin ez kolaboratzeko eskatu zien. Hala eta guztiz ere, kazetariak bere horretan jarraitu zuen eta azken sei asteetan argitaratu du bere lana egunkarian, «esaten diguten guztiari kasu egingo bagenio ez genuke ezer idatziko», argudiatuz. Edukiek eztabaida ugari sortu dute, beste hainbat gauzen artean, kontraesankorra eta tiranoa deitzen diolako idazleari, eta berak sortu duen pertsonaiak “berezko Houellebecqi” irabazi diola esaten duelako. Antza, tiranoaren aipua anonimo mantendu nahi izan duen lagun batek esana da.

Udan irakurtzen ari naizen liburuetako bat «Soumission» da; erregimen islamista baten gobernupean dagoen Frantzia baten narrazio futurista, egungo Frantziaren irudi deformatu bat azalduz

Jakina da idazleak beti nahi izan duela bere bizitza pribatua babestu, eta Cheminek egin duena pribatutasun hori erasotzeko saiakera perfektua izan da. Baina, Frantziako idazle irakurriena denean, “politikoki zuzena” den horrekin jolasten inor baino iaioagoa izanik (“Soumission” adibide ezin garbiagoa da), adierazpen askatasuna behin baino gehiagotan aldarrikatu duenean eta gai probokatzaileak inork baino hobeto lantzen dituenean, orain gauza horiek guztiak Cheminen lanaren perspektibara ekartzen ditugunean, idazleak egin duen kontraerasoaren koherentzia airea galtzen hasten da. Marra horretan dabilta denak, “politikoki zuzena” den horrekin jolasean. Eta, joko horretako erregelak ezin dira birdefinitu komeni denean bakarrik, ezta? Denek egin dute marratik beste aldera salto, eta zein den probokazio handiena neur-tzea ezinezko lana bihurtzen dela iruditzen zait. •

«Borroka eta eraldaketarako sekulako esparrua da maitasunarena»

Duela urte batzuk bizitako esperientzia pertsonal batek eraman zuen maitasunaz eta maitatzeko moduez gogoeta egitera Ainara Santamaria (Berriatua, Bizkaia, 1988). Gerora, Ikasketa Feministak eta Generoko Masterraren baitan landu du gaia, maitasun erromantikoa eta euskal musikagintzaren arteko harremana aztertuz bere ikerketa lanean. Hasierako jakin-minetik harago, bere jardun politikoaren erdigunean kokatu du maitasunaren gaia, «gizartea eraldatzeko esparru eraginkorra» dela iritzita.

Maitasun erromantikoari buruzko ikerketa egin duzu. Zerk eraman zintuen maitasunaz eta maitatzeko moduez hausnartzera?

Ikasketa Feministak eta Generoko Masterreko amaierako lana izan da ikerketa lan hau. Masterra burutu aurretik Mexikon egon nintzen, eta han nengoela poliamor izeneko tailer batean parte hartzeko aukera izan nuen. Bertan, eguneko gai-zerrendaren barruan zeuden harreman pertsonalei eta maitasunari loturikoak: nola bizi ditugun harremanak, erlazio motak, zeloak... Horrelako kontuak hemen ez dira hainbeste landu; talde feministetan edo jabekuntza eskoletan puntualki agian, baina harreman afektibosexualak ez dira aztertu modu iraunkor batean. Garai hartan bikote harreman bat ere baren, eta gauza asko planteatzeko hasi nintzen. Uste dut maitasunaren gaiak gauza asko ezkutatzeko dituela atzean, besteak beste, genero sistema osoa sostengatzen duten balio asko transmititzen dira maitasunaren bidez.

Zer da maitasun erromantikoa zuretzat? Nola definituko zenuke eta zein ezaugarri ditu?

Gaur egun mendebaldeko kulturaren gailentzen den maitasun ereduaren izendatzeko erabiltzen den kontzeptua da maitasun erromantikoa. Maitasuna ulertu

eta bizitzeko eredu konkretu bat da eta ezaugarri jakin batzuk ditu: betierekotasunean, heterosexualitatean eta eskusibitatean oinarritzen den maitasunaren ideologia da. Menpekotasun eta jabetza harremanean oinarritzen den maitasun eredu dela gehituko nuke; izan ere, beste pertsona norbere jabetza moduan ikustera garamatza maitasun eredu horrek eta bestearekiko zapalkuntza ere gertatzen da kasu askotan. Menpekotasunezko harremanak sortzen dituen maitasunaren eredu litzateke, beraz.

Errealitate bihurtutako mitoak al da maitasun erromantikoa?

Bai, guztiz. Ideal batean oinarritzen den eredu da. Erreala biltzan saldu izan diguten eredu idealizatu bat da, baina argi dago errealitatean ez dela existitzen gisa horretako arrosa koloreko harremanik. Ez da sostengagarria inolaz ere. Maitatzeko modu hori berezkoa edo naturala dela sinetsarazten digute, eredu honek sistema mantentzeko funtzio konkretu batzuk betetzen dituela ezkutatu. Izan ere, betierekotasun eta eskusibitate horren atzean badaude hain politak ez diren bestelako kontuak: sakrifizioa, kontrola, zeloak...

Baditu topiko batzuk maitasun erromantikoak: Ni zu gabe ez naiz ezer, laranja erdiarena, printzesa eta printze urdina... Hori guztia maitasun erromantikoarekin lotzen da, ezta?

Bai. Maitasun eredu honek lotura estua du geure burua gabeziatzeko pertsona gisa ikustearen ideiarekin. Azken batean, maitasun erromantikoaren mito nagusietako bat da pertsona gisa osatu egin behar garela, bilatu behar dugula kosta ahala kosta gure laranja erdia izango den pertsona hori; hau da, gure kabuz eta gu bakarrik ez garela subjektu osoak, gabeziatzeko pertsonak garela eta perfektuak izateko beste pertsona bat behar dugula ondoan, neska batek mutil bat eta alderantziz, eredu jakin horrek soilik balio baitu maitasun eredu honetan. Soilik modu horretan izango gara sub-

jektu oso eta perfektu. Hauxe da, nire iritziz, maitasun erromantikoaren mitorik handiena.

Maitemina, zeloak, kontrola... Hori guztiak ere maitasun erromantikoarekin erlazionatzen dituzu?

Bai. Egia esan, niretzat ez du ezer positiborik maitasun eredu honek, saltzen den irudi ideal horren atzean sakrifizio, dependentzia eta kontrol asko ezkutatzeko duen maitasuna bizitzeko modu bat baita. Ez zait iruditzen oreka eta negoziazio batean oinarritzen den harreman sano bat denik. Kasu askotan, zapalkuntza handi bat gertatzen da maitasunaren izenean. Adibidez, maitatzen dugun pertsona jabetza gisa ikusteak kontrol eta jelskortasunarekin lotura estua du. Beste pertsona soilik gurea dela pentsatzen badugu, haren askatasuna mugatzen ari gara; bere harremanak, izaera, hitz egiteko modua, janzkera... hori dena guk kontrolatu egin nahi izaten dugu.

Mendebaldeko gizartean maitasuna bizitzaren erdigunean kokatu dela diozu, eta batez ere emakumeengan. Zein paper betetzen du emakumeak maitasun eredu honetan? Eta gizonetzakoak?

Aurrez aipaturiko osagarritu beharreko subjektu hori emakumea da kasurik gehienetan. Gizonak ez daukate hain presente gabeziatzeko pertsona direnik, gizonak ez baitira horrela hezten; emakumeak, ordea, bai. Gizonak helburu asko izan ditzakete bizitzan, eta maitasuna horietako bat izan daiteke; garrantzitsua, noski, baina mutilen kasuan, nesken kasuan ez bezala, maitasuna ez da izaten bizitzaren ardatz nagusia. Orokorrean, mutilak ez diete pisu berdina ematen bikote harremanei; beraientzako bizitzako beste elementu bat gehiago da maitasuna. Emakumeoi, ostera, maitasuna gure bizitzaren zutabe nagusia dela irakasten zaigu; modu esplizitu baten esaten zaigu egin behar duguna maitasunagatik egin behar dugula, bizitza honetan norbait izateko ezinbestean bilatu

AINARA SANTAMARIA

Maitasun erromantikoak musikagintzan duen presentzia ikertu du Ainara Santamariak. Maitatzeko eredu idealizatuaz, bere ondorioez eta bestelako harreman moduak indartu eta ikusaraztearen premiaz hitz egin digu

Julene Larrañaga



behar dugula gure laranja erdia, mutil bat, konkretuki, eta horren inguruan gure bizitza erai-ki eta planifikatu.

**Ildo horretatik, heziketa, sozia-
lizazio prozesua eta botere ha-
rremanak lotuta daudela si-
nesten duzu.**

Dударик gabe, eskutik doa dena. Txikitatik hasten den sozializa-
zio prozesuaren bidez finkatzen
dira botere harremanak. Mutil
eta neska izaten irakasten digu-
te eta, genero sistemaren ondo-
rioz, neska izendatzen gaituzten
momentutik desabantailan gau-
de botere harremanetan. Esate-
rako, oso gaztetatik neskak ob-
jektu sexual gisa tratatuak eta
ikusiak gara, gure jarrera edo
janzkera besteen plazeraren ara-
bera moldatuz. Izateko eta bizi-
tza ulertzeko modu bat inposat-
zen zaigu: emakume izaten
irakasten zaigu, gure bizitzan le-
henetsi behar duguna maitasu-
na dela esaten zaigu, maitasu-
nean zoriontasuna lortzeko
beste pertsona bat lortu behar
dugula esaten zaigu eta pertso-
na hori lortzeko jarrera egokiak
zeintzuk diren ere irakasten di-
gute. Finean, bizitza honetan
nolakoak izan behar garen ira-
kasten zaigu, eta hau botere ha-
rremanekin lotuta dago. Azken
batean, bikote heterosexualetan
abiapuntua oso deberdina baita
mutil eta nesken artean. Hain
justu, maitasun erromantikoaren
beste mitoetako bat da de-
nok, neska eta mutil, puntu be-
retik abiatzen garela, baina
kontuan hartu behar da gizon
eta emakumeak oso modu des-
berdinean hezten gaituztela eta
bakoitzaren inguruan espektati-
ba desberdinak eratzen direla.

**Maitasun erromantikoak eus-
kal musikagintzan duen pre-
sentsia aztertu duzu. Zergatik
hautatu zenuen musika, eta ez
beste kultur adierazpide bat?**

Alde batetik, musikak garrantzi
eta presentsia handia duelako
gure gizartean, batez ere jende
gaztearen artean. Gazteen iden-
titatearen eraikuntzan garrantzi
handia daukan elementua dela
deritzot, gure emozioei forma
ematen dielako musikak, beste-



Argazkiak: Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS

*«Musikarekin
batera helarazten
diren mezuak guk
uste baino
sakonago heltzen
zaizkigu. Ere mu-
egokia izan daiteke
gauzak aldatzen
hasteko»*



ak beste. Bestalde, musikarekin
batera helarazten diren mezuak
guk uste baino sakonago helt-
zen zaizkigula uste dut. Beraz,
musikak eragin handia izan de-
zake gure identitatean eta beron-
en eraikuntzan. Horregatik en-
fokatu nuen gaia horrela. Gainera,
musika bera eremu
egokia izan daiteke gauzak alda-
tzen hasteko.

**Euskal musikan zer-nolako pi-
sua eduki du maitasunak? Mai-
tasunari asko kantatu zaio edo
beste gai batzuek presentsia
handiagoa eduki dute?**

Euskal musika zer den definitu
beharko genuke aurrena, baina
hori beste eztabaida bat litzate-
ke... Orokorrean esango nuke
maitasunari asko kantatu zaio-
la. Beste gai batzuek ere presen-
tsia handia izan dute euskal
musikan, gai politikoek adibi-
dez, baina esango nuke horiek
ere ikuspuntu oso erromantiko
batetik jorratu izan direla. Ga-
tazkaren auzia, naziotasuna,
aberria... Egia esan, zalantzak
izan ditut eta kasu askotan ez
dut jakin identifikatzen zeri
abesten zaion: pertsona konkre-
tu bati, herriari, kartzelan dago-

en presoari... Hain erromantiko-
ki kantatu izan da dena gure he-
rrian!

**Zein da atera duzun ondorio
nagusia? Euskal musikagin-
tzak maitasun eredu erroman-
tikoaren mito hori indartu
egin duela esango zenuke?**

Orokorrean, eredu erromanti-
koa birproduzitu da eta, ondo-
rioz, maitasun eredu hori indar-
tu egin dela ikusi dut. Beste gai
batzuen inguruan letra kritiko-
ak egin izan diren bitartean,
maitasun erromantikoaren mi-
to hori indartu egin dela esango
nuke. Egia da ez dudala euskal
musika bere osotasunean azter-
tu, hori ezinezkoa bailitzateke;
baina, orokorrean, baietz esango
nuke. Bestelako gaien inguruan
letra kritikoak dituzten musika
talde askok ere topiko erroman-
tikoak erreproduzitzen dituzte
maitasunari eta bikote harre-
manei buruz abestean. Orain
bertan ez nuke jakingo maita-
sun eredu desberdin bat bultzat-
zen duen abesti bakar bat ere
aipatzen.

**Hesian taldea hartu duzu adi-
bide moduan. Zergatik?**

Ezaugarri jakin batzuk izango
zituen talde bat nahi nuen: gaz-
teek entzuten duten talde bat
izatea, euskaraz abestea, maita-
sunari abesten diona eta letre-
tan kritika soziala biltzen due-
na. Horregatik aukeratu nuen
Hesian. Asko abesten du maita-
sunari buruz, bai harreman per-
sonal edo bikote harremanei
buruz, baina baita bestelako
maitasunei buruz ere; herriare-
kiko maitasunari buruz, adibi-
dez. Esan daiteke, maitasun
erromantikoak eta berari loturi-
ko maiteminak presentsia han-
dia duela taldearen kantuen hi-
tzetan. Eta bai: Hesian-ek ere
maitasun erromantikoaren to-
piko asko erreproduzitu ditu be-
re kantuen bidez.

**Gaur egungo gizartean maita-
sun eredu bakarra nagusitzen
dela uste duzu edo hori alda-
tzen ari da maitatzeko eta erla-
zionatzeko eredu anitzen ager-
tzearekin?**

Argi dago saltzen eta bultzatzen
den eredu bakarra dela gaur
egun: maitasun eredu erroman-
tikoak, hor ez dut zalantzarik.
Gertatzen dena da gero eta arra-
kala gehiago ikusten direla.

Idealizatu den eredu bakar horretatik urrun, beste eredu batzuetako harremanak azalera-tzen ari dira, zorionez. Ez soilik harreman homosexualak, baita askatasunean oinarritzen diren harremanak ere, beste pertsonaren nahi eta desioak erdigunean kokatzen dituztenak, negoziatzen diren harremanak... Harreman eredu berri eta desberdinak agertzen hasi dira azken urteotan, baina oraindik ere gutxiengoa dira. Sekulako lana dago egiteke disidente diren harreman mota horrek bistaratzeko, indartzeko, eta, zergatik ez, gu geu ere bizitzera ausartzeko.

Bestelako ereduak badiren arren, zergatik saltzen da eredu bakar moduan maitasun eredu erromantiko eta idealizatu hori? Nori interesatzen zaio honen iraun dezan?

Argi dago sistemak begi onez ikusten duela eredu hau. Sistemari interesatzen zaio hau mantentzea: hau da, bikotea izatea pertsonen bizitzaren marko nagusia, familiak bizirautea, emakumeak bere funtzio erreproduktiboa maitasunaren ize-nean egiten jarraitzea... Maitasun eredu erromantikoaren interes nagusia genero sistema bera sostengatzea da eta, beraz, eredu hori indartzen duten me-zuekin bonbardatzen gaitu sistemak une oro. Gaur egun oraindik gailentzen den eredu horixe da, zoritxarrez.

Bikote harremanak askotari-koak dira egun, baina tamalez ez dute guztiek onarpen sozialik. Nola lortu maitasuna libre bizitzea, bakoitzak nahieran?

Esan bezala, funtsezkoa da eredu bakar horretatik aldentzen diren harremanak agerraraztea eta maitasun erreferente berriak bistaratu eta bultzatzea. Printzesa eta printzeen ereduaz bestelakoak diren harremantzeko moduak indartu eta ikusarazi behar ditugu, denon onerako. Ez soilik homosexualak direnak, baita taldean maitatzen dutenak ere, askatasuna erdigunean jartzen dutenak, beste pertsona jabetza gisa ikusten ez dutenak... Maitasunaren esparruan errefe-



rente berriak bultzatu behar ditugu: kultur esparrutik, komunikabideetatik, hezkuntzatik...

Maitasuna eraikuntza soziala den heinean, deseraiki eta berreraiki daitekeela diozu. Nola deseraiki orain arteko guztia eta nondik hasi berreraikuntza prozesua?

Maitasuna berreraikitzen hasteko, lehenik eta behin eraikuntza moduan ikusi eta ulertu behar dugu. Zerbait naturala izango balitz bezala saltzen digute maitasun erromantikoa, baina argi dago eraikuntza sozial, politiko eta kultural baten aurrean gaudela. Mendebaldeko kulturean, Historian zehar maitasuna nola bizi eta ulertu izan den aztertuz gero, garai batzuetan maitasuna ez existitzetik gaur egungo errealitatera etorriko ginateke: mai-

«Funtsezkoa da maitasun erromantikoaren eredutik aldentzen diren harremanak agerraraztea eta maitasun erreferente berriak bistaratu eta bultzatzea»

tasunaren kultura totalera, maitasuna bizitzaren erdigune izatera igaro den gizartera. Maitasunak historian zehar eduki dituen esanahi desberdinek erakusten dute eraikia izan den zerbaiten aurrean gaudela. Eta horrek, era berean, ematen du aukera eraikia eta ikasia izan den hori guztia deseraiki eta desikasteko. Maitasunari eraldaketarako funtziorik ez zaio aitortzen, baina beste gizarte eredu bat sortu nahi badugu maitasunetik ere hasi behar gara gauzak aldatzen.

Deseraikuntza prozesu horretan garrantzia ematen diozu taldearen indarrari, maitasunaren gaia kolektiboki lantzeari. Zergatik?

«*Lo personal es político*» esaldia erabili ohi da sarri feminismoa-

ren baitan. Gaia politikoki eta publikoki kokatzearen garrantzia azpimarratu nahi da honekin. Adibidez, maitasunari buruz taldean hitz egitea eta eztabaidatzea, maitasunari borrokarako esparru bat ematea, taldean aztertzea eta konparatzea norbere eta ondokoaren hezkuntza eta sozializazio prozesua nolakoak izan diren... Maitasuna taldean kokatzeak ematen dio gaiari zentzu politikoa; izan ere, maitasuna politikoki ere landu behar da. Eta taldeak ematen du gauzak aldatzeko aukera, norbera bakarrik munduaren aurka borrokan aritu ordez. Deseraikuntza prozesu hori guztia ez da erraza eta ez da goizetik gauera egingo, hamarkada askotako zutabeak eraitsi behar dira-eta. Beraz, hori guztia taldean lantzea errazagoa eta eraginkorragoa litzateke.

Mugimendu Feministak zer proposatzen du honen guztia-ren inguruan?

Orokorrean, emozio eta afektibitatearen esparrua ez da gehiegi landu Euskal Herrian, baina nonbait landu bada Mugimendu Feministaren baitan izan da. Uste dut feminismoak sekulako lana egin duela gai hau politikoki kokatzen eta emakume asko deseroso sentiarazi gaituen auzi askori erantzun posible bat emateko erradiografia bat egiten. Maitasunaren gaiari dago-kionez, botere harremanen auzia ezbaian jartzen ari gara, botere harremanen eraikuntza- ren espazio erabakigarrietako bat delako harreman pertsona-lena. Batez ere gazte mailan, patriarkatuaren baitan gauzak aldatzeko zirrikituren bat baldin badago, hori maitasunaren esparrua dela uste dut.

Zentzu honetan, etengabeko hausnarketa eta praktika ezinbestekoak dira. Maitasunari duen funtzionalitate hori aitortu eta bestelako eredu batzuk indartzen ahalegindu behar gara. Eta noski, gure inguruan maitasun erreferente berriak bultzatu. Azken batean, harreman pertsonalak aldatuz gizarte bera aldatzen, garatzen eta hobetzen ari garelako.

Gune intimoak

Joxean Agirre

Mahai altu bat kalean, gainean bi ardo eta aurrean mintzaide bat, ahal bada emakumea, hitz egiten ari garen bitartean begiei, ezpain jostalteei edo eskoteari erreparatzeko (emakumeek ez dakit nora begiratuko duten). Hori dela iruditzen zait kulturaren adierazpenik sofistikatuenetako bat, operara joan edo artista garaikide baten obrari begira egotearen pareko.

Terrazen fenomeno, bere zabarkeria guztiekin, interesgarria dela esan behar da, espazio publikoan gune intimoak lortzen di-tuelako. Gune intimo horiek nolabaitekoak dira askotan; nire emaztea, esate baterako, inguruko bikote askoren elkarrizketak jarraitzeko gai izaten baita, horretara jarritz gero. Edozein modutara ere bikoiztasun hori izan daiteke (kalean zaude baino aldi berean intimitatean) terrazek gurean eta mundu erdian izan duten arrakastaren arrazoia.

Gune intimo horiek mahai altuen bidez galtzadatik metro eta erdi igotzen direnean ordea (enoteka atarietan eta edaritegi txikietan jarri ohi dituzte), elkarrizketek ere beste maila bat har dezakete. Horri, ilunabarra gehitzen bazaio, itzaltzen hasi berria den zeru urdin bat esate baterako (zeruak hirugihar frijituaren kolorea ere izan dezake, Banvillek modu prosaiko bezain dotorean esango zukeenez), intimitateaz ez ezik fusioaz ere hitz egiten has gaitezke.

Udan zehar, pintxo eta ardo bana tarteko horrelako mahai batean eseri izan garen bakoitzean emazteak galdetzen zidan ez zuela ulertzen zergatik jartzen nintzen hain umore oneko. Nik halako bake bat sentitzen nuela erantzuten nion, ia-ia Txindoki gainera igotzen naizenean bezalatsu. Eta, egia esan, lorpen handia da hori, arrazoi zehatzik gabe ia beti presaka dabilen horietakoa bainaiz. Emazteak mantra

bat bezala errepikatu ohi dit: «Baina zeren presa duzu, jubilatuta zaude-eta?». Niri modu askotako erantzunak bururatzen zaizkit, batzuk gogor samarrak, baina langile baten ordutegiarekin jarraitzen dudala erantzuten diot haserre begiratzen diodala, edo funtzionario baten ordutegiarekin gutxienez.

Presak presa eta afanak afan, mahai altu baten gainean bi ardoak jartzen ditudanean, ordea, antzaldatu egiten naiz eta patxadatsu eta umoreko bilakatzen, eta horrela nagoenean bezperan ikusitako pelikulaz, irakurri berri dudaneleberriaz, seme-alabez edo politikaz, batez ere politikaz, gutxi hitz egingo dute nik bezain tentuz eta dotore. Are gehiago, terraza *chic* eta txukun horietako batean nire bigarren ardoa eskuan dudala, ezezagun batek nola hitz egiten dudanean ikusiko balu, tipo interesgarria naizela pentsatzera iritsi daiteke. •

Txarrantxa hesia

Saioa Iraola

U rte osoko jardunean atsedean hartuz oporretara etorri gara Iberiar penintsulako hegoaldera. Hondartzara iritsi naiz. Eskuoihala, hamaiketakoa eta eguzkitako aterkia lekutu, eta, Atlantikoaren beste aldera, itsaso urrunera begira nago; Maroko (Afrika) gertu bezain urrun ikusi eta sentitzen dut. Itsasoaren zabal-tasuna, irekitasuna estutzen da Gibraltarko lur muturrean, inbutu bilakatuz.

Hemezortzi ontzi eta 3.000 migrante artatu dituzte Libiatik gertu Italiako kostazai-nek, Ceutara ehunka hegoaldeko saharar iritsi dira itsasontzi batean; haurrak eta haurdun dauden emakumeak dira horietatik asko... Gisa horietako albisteak etengabe irakurtzen eta entzuten ditugu komunikabi-deetan. Entzungor egiten dut maiz, inpoten-

tziaz bizi ditudan giza eskubideen urraketa horiek “urrun” gertatzen direla sinetsaraziz eta guztiz inbertsonalizatuz. Baina egun hauetan inoiz baino gertuago sentitzen di-tut.

Itsaso zabala alde batean; txarrantxa he-sia, goma pilotak, negar gasa, kanporaketak eta polizia bestean. Bizibeharra eta nahiaren aldeko bidaia batean, eta, bestean, mugen militarizazioa sustatuz, Europako herrialde-ek dituzten interes ekonomiko eta demo-grafikoen arabera migrazio politika ez ba-teratu hiltzaileak.

Herrialdeetako mugak hilerri eta gotorle-ku itolarri bilakatzen ari dira European herri-tar askorentzat. Izan Mediterraneoko muge-tan edo izan Europa hegoalde-tik iparraldeko lurraldeetara iristeko asmoz, aste honetan


bertan Mazedoniaren eta Greziaren arteko mugan ikusi bezala.

Elita Edehi emakume nigeriarra ere muga politikek bahitua dute Hendaian, Nigeriatik ihesi, lesbiana izateagatik hamalau urteko espetxe zigorrera kondenatu dutelako. Sor-territik AEBetara, bertatik kanporatua Fran-tziara eta, orain, asilo politikoa ukatu eta Es-trasburgoko epaiaren zain daukate erretentzio zentro batean. Bizitzaren eta as-katasunaren bideko ataka itxiaz diote.

XXI. mendea, globalizazioaren aroa: infor-mazioaren zein merkantziaren mugikorta-sun askeak ezaugarritzen duten aro hone-tan, herritar batzuek muga-hesiak irekita ditugun bitartean beste batzuek ez dute oporrik, ez mugimendu askerako aukerarik ere. Txarrantxa hesien gatibu dira. •

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO DOLIWA. FONDO FAMILIA DOLIWA

RICARDO DOLIWA, ARGAZKILARI ALEMANIAR BAT DURANGALDEAN

Oso gaztetatik zuen Ricardo Doliwa alemaniarra (Berlin 1901, Durango 1976) argazkilaritzarekiko zaletasuna. 1940 -lan kontuak medio Durangon ostatu hartu zuen urtea- eta 1950 artean hainbat argazki egin zituen, bere ingurunea iruditzen hartuz: bizilagunak eta lursailak lantzen ziharduten baserritarrak; hondamendiak -1941eko otsailaren 15ean urakan-haizeek eragindakoak kasu-; erromeria eta prozesioak; eta baita II. Mundu Gerraren harira Durangon ziren soldadu alemaniarra ere. Edonora zihoala berekin zeraman argazki kamera eta, inguruko esanetan, Urkiola eta Saibigain mendia ziren bere lekuri kutunenak. Kaballosteko (Durango) garbitokian arropa garbitzen ari diren hainbat emakume ageri dira alboko irudian.



Masifikazio turistikoaren alde

Oinez nator Boloniatik Florentziara, Apeninoak zeharkatuz, eta Piazza Della Libertà zeharkatzeko zebra-bidean jende gehiago ikusi dut aurreko bost egunetan baino. Lau errei igaro behar izan ditut plazaren erdiko parkera pasatzeko, zirkulazio burrunbatsuak durduzatu egiten nau, eta naufrago bat bezala abiatu naiz semaforoa berde jarri zaidanean. Parkea grazia-rik gabeko oasi bat da: urmael umil bat, belardi eskasak, autoen ihes-hodiek belztutako harritzko eserlekuak. Baina pixka bat gelditu nahi dut bertan.

Zapatilak kendu nahi ditut, puztutako oinak askatu, hanka gortuak pixka bat luzatu, motxila utzi. Florentziako alde zahar-
ra sartzeko unea ere atzeratuko dut horrela, bost eguneko patxada eta gero, dena azkartu egin delako: hainbeste jende espaloietan bizkor ibiltzen, hainbeste auto zaratatsu, hainbeste autobus, tran-
bia, turista talde, palazio museo eliza basilika parke lorategi zubi hilobi eskultura merkatu izozkitegi pizzeria focacceria panineria, dena ezinbestekoa nahitaez-
koa derrigorrezkoa behar-be-
harrezkoa: ezinezkoa.

**Cavour kalean aurrera noa, oinezkoen eremuan dagoe-
neko, eta turistak dentsita-
tea unetik unera handitzen
ari da.** Ezin dut lerro zuzenean ibili: gidarien azalpenak en-
tzuten dituzten taldeak saihestu behar ditut, hara eta hona begira oso mantso doa-
zen jendetzak zeharkatu, pala-
zio baten aurrean argazkiak ateratzen dituzten *selfiezaleak* inguratu. Ni mendizale baten martxa bizian noa, motxila soinean, izerditan, kantinplotatik edanez, galtzetan lokatz arrasto lehorrak ditudala, eta pentsatzen hasi naiz turista hauek guztiek nire pasaeraz jabetu beharko luketela, Bolo-
niatik oinez natorrela jakin be-
harko luketela, niri buruzko komentarioak egin beharko lituzketela miresmenez. Be-
raiek baino pertsona interes-
garriagoa naizela onartu be-
harko lukete. Bidaiarien artean maiz jaiotzen den ideia hori burmuinean nola erne-
tzen zaidan sentitu dut: ni ez naiz turista. Ergel samarra besterik ez naiz.

Florentzian Errenazimentu-
ko estatuen aurrean argazkiak

atera behar dira, Toscanako ogiz eta zerri haragi onduaz eginda-
ko mokaduak jan behar dira, *chianti* ardoa edan behar da, Arno ibaiaren ertzetik paseatu behar da, masifikazio turistikoaren kontra purrustadak bota behar dira eta museoak bisitatzeko dauden ilara amaiezinak kritikatu behar dira. Dena dago espe-
rientzia turistikoaren barne, baita turismoaren kritika ere. Bru-
nelleschiren kupulara edo Giottoaren kanpandorrera igotzeko ordubeteko ilara dago, eta zorteduna naizela azaldu didate, ohi-
koak izaten baitira bi eta hiru orduko itxaronaldiak.

**Bada, niri, primeran iruditzen zaizkit ilarak. Ordu laurden bat zutik eta geldu igaro ondoren, edonor aspertuko da bere bu-
ruari argazkiak ateratzeaz, eta inguruari erreparatzeko bes-
te aukerarik ez du izango.** Begiratzeko obligazio horri esker, agian zerbait ikusiko du. Eta azkenean sartzen denean, bisita egiten denbora gehiago pasatzeko beharra sentituko du, ilara hain luzea egiten tentelegia izan ez dela erakusteko besterik ez

bada ere. Florentziako kan-
pandorrearen puntan, kupu-
laren linternan, bataiotegia-
ren barnean, Uffizi arte
galerietan, sartzeko denbora
asko itxaron behar den le-
kuan, bisitariak ez dira
konformatzen argazki mor-
doxka bat atera eta berehala
irtetearekin. Patxadaz, hara
eta hona, begiratzeko, komen-
tatzen gelditzen diren leku
bakanetakoak dira.

**Florentziako turismo bule-
goak 72 euro balio dituen
txartel bat saltzen du, hiri-
ko museo eta monumentu
guztiak bisitatzeko aukera
ematen duena 72 ordutik.** Ilarak egin gabe sartzeko es-
kubidea ere ematen du, baina
ikus behar da nola ibiltzen
diren, txartela lepoan, kate-
dralera presaka sartzen, bisi-
ta azkar egiten, argazkiak ate-
ratzen eta korrika hurrengo
museora salto egiten, zoroen
moduan. Horregatik, ilara lu-
zeen alde nago. Horregatik,
urtero 4,8 milioi turista jasot-
zen dituen Florentzian noiz-
bait bisitari nahikorik ez ba-
lego, Udalak figuranteak jarri
beharko lituzke ilarak luza-
tzeko. •



Bada, niri primeran iruditzen zaizkit ilarak. GAUR8

osasuna / hiria / aldia / komunikazioa

3 BEGIRADA:

1,5€
ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DAGOENeko

ZURE KIOSKOAN SALGAI



BIDAIA ALDIZKARIA
7haizetara



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com

